



ARGIA



Harri-jasotzea, goraldian

CROSSFIT ETA SARE SOZIALAK AKUILU

24-29. orrialdeak



**Espainiako Atzerritarren
Legearen erreforma:
zaharrak berri**

30 | MIGRAZIOA



**Lan desiragarrien
aldeko deia**

34 | OLATUKOOP



**"Sorkuntzatik ere
ari gara errealitate
gordina kontatzen"**

44 | FAISAIEN IRLA

APIRIL
~
MAIATZEAN

Azokaroa!

30^{ean}
ORTZAIZE
MENTA
liburudenda

18.30

"HETERO" LIBURU AURKEZPENA

UXUE ALBERDI EGILEAREKIN



7^{an}
ZIBURU
Baltsan

19.00

"RR -6-ERRE(AH)ALA"

MAIALEN LUJANBIOren ERREZITALDIA



10€ pintxoak barne

16^{an}
URRUÑA
Bertoli

19.00

"BIHARRAREN HEGIETAN"

MADDI, AINHOA eta IXAK SARASUA
eta JULEN LEZAUen
ERREZITALDI MUSIKATUA



5€ pintxoak ondotik

19^{an}
 **uhinetan**
EUSKAL
RRATIAK

19.00

"EUSKARAZ SORTUZ (DUIN) BIZI?"

MAHAI INGURUA XIMUN FUCHS (Artedrama, Axut)
ETA AMAGOIA GURRUTXAGA (Lanartea)



23^{an}
AZKAINE
Bil Toki

19.00

"GIZATASUN ARRANTZALE"

MIKEL EPALTZA

LIBURU AURKEZPENA

EGILEAREAKIN

(eta Mixel Jorajuria itzultzailearekin)



28^{an}
DONIBANE
LOHIZUNE
Mediateka

19.00

"MASUSTA ERREXIMENTA"

LIBURU AURKEZPENA

EKAITZ BERGARETXE EGILEAREKIN



ZIBURUKO EUSKAL
LIBURU ETA DISKO
AZOKA



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Iritziak

- 19 | ENDIKA ALABORT
- 20 | SONIA GONZÁLEZ
- 21 | SUKAR HORIA
- 21 | ARANTZA GUTIERREZ
- 22 | AINGERU EPALTZA

Finkoak

- 36 | GORPUTZ HOTSAK
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


GORKA RUBIO / FOKU

44 | **ASIER URBIETA** "FAISAIEN IRLA" FILMAZ

"Mugak fikzioa dira, ez dira existitzen. Guk asmatu ditugu. Baina jakina, ondorio oso tragikoak dituzte", esan dio Errenteriako zinemagileak Gorka Peñagarikanori elkarrizketan. Bidasoa ibaian gertatzen diren egoeraz mintzatu da, normalizatu ditugun gauza zentzugabeek, eta filmak mugak gainditzeko bilatu dituen moduez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | INDIA ERDIALDEAN

**Idortze globalari
aurre egiteko laborarien eta
ikertzaileen elkarlana**

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | ALICIA VALDÉS

**"Moneta sozialak ez du
euroa eraitsiko, baina bizitza
bizigarriagoak sortzen ditu"**

Danele Sarriagarte

24 | KIROLA | HARRI JASOTZEA

**Harri eskolek
emandako bultzada**

Julen Ugartemendia

30 | GIZARTEA | LOUEILA SID AHMED

**"Atzeritarren Legearen erreformak
asiloari uko egitera behartuko ditu
pertsona zaurgarrienak"**

Jones Arruabarrena

34 | EKONOMIA | MAITZAK 1

**Lan desiragarriak eta
burujabeak denontzat**

Olatukoop

48 | KULTURA | AZOKAROA

**Sei ekintza kultural
Ziburuko 6. azokaren atarian**

Unai Lomana eta Xabier Letona

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:


**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**



**Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axiel Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikokoak

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202506489


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.



Garbiketa

NBEren datuen arabera, Gazako lurren erdia mendeen hartu dute militarki. Eta azken hilabeteen Israelen iragarri dituen ebakuazio-aginduekin batera, Gazaren %69 "debekekatutako eremu" izendatu dute. Gerrarako ministro Israel Katzek dio lur horiek "garbituak" izan direla. Sionisten anaia handiak publikoki adierazi duen garbiketa etnikorako planaren lehen urratsa ikusten ari gara, su motelean. Palestinarrak gero eta lurralde txikiagoan, suntsituagoan eta setio etengabearen zokoratzen ari dira, armadak "gune humanitario" deiturikoak ezabatu bitartean. Asmo genozidak publikoki iragartzeko aukera dagoen garaietan bizi gara.



Osakidetzan euskaldunak identifikatuta: arta euskaraz bermatzeko bidean pauso bat?

 ONINTZA IRURETA AZKUNE

Ospitalizatuta dauden pazienteek eskumuturrekoan eramango dute “e” ikurra. Hala, osasun langileek badakite herritar horiek eskatu dutela euskaraz artatua izatea. Osakidetza dio euskarazko komunikazioa errazteko beste tresna bat gehiago dela. Proiektu zabalago bateko pauso bat gehiago da. Osakidetza helburu nagusiak hizkuntza lehenetsia aitortzea eta pazienteak identifikatuta edukitzea dira. Alabaina, tresna berria iragarri dutenean ez dute azaldu nola bermatuko duten osasun arta euskaraz izatea.

Esparru sanitarioan, oso ohikoa da arta gaztelaniaz jasotzea, eta beti “Euskaraz-badakizu?-ka” ibili beharrean, amore eman eta makina bat aldiz egin du euskaldunak gaztelaniaz. Errealitatea horrelakoa izanda, euskaldunari euskaraz egiteko bidea erraztuko dioten tresna guztiak ongi etorriak dira. Lehendik ere ezaguna zaigu “e” ikurra, euskaraz dakiten osasun langileak identifikatzeko erabiltzen delako, eta zerbitzuetan ere sarri ikusi dugu. Ikur horri esker, estres linguistikoa arintzen da, euskaldunak badakielako zuzenean euskaraz egin dezakeela.

Duela hamar urte, Osakidetza erregistro prozesu bat abiatu zuen, zeinaren bidez herritarrek aukeratu zezaketen zein hizkuntzatan artatuak izan nahi zuten: euskaraz edo gaztelaniaz. Gaur egun ere erregistratzeko aukera dago. 370.000 lagunek aukeratu dute euskara.

Orain beste pauso bat eman du Osakidetza. Ospitalean ingesatuta daudenek identifikaziorako eskumuturrekoa edukitzen dute ospitalean dauden denbora guztian. Larrialdietara heltzen direnekin gauza bera egiten dute, alta eman arte. Eskumuturrekoan izen-abizenak, jaioteguna, historia klinikoaren kodea eta beste hainbat datu jasotzen dira. Horiekin batera agertuko da “e” ikurra. Osasun langile orok jakingo du ikur hori ikusi bezain pronto paziente horrek euskaraz artatua izatea eskatua duela.

Eskumuturrekoari “e” sinboloa gehitzea proiektu zabalago baten parte da. Proiektuaren helburua da, Osakidetza eta Osasun Sailak adierazi dutenez, “pro-



EUSKO JAURLARITZA / IREKIA

zesu asistentzialaren kalitatea hobetzea pazienteen hizkuntza lehenetsia aitortuz, eta, bestetik, euskara lehenesten dutenak identifikatzea, euren hizkuntzan artatuak izateko aukera izan dezaten beti”. Aitortza eta identifikazioa, baina ez dago bermatuta euskaraz artatuko dutenik pazienteak. Ez dute azaldu zein lanketa egin duten profesionalekin eta nola jokatu-ko duten eskumuturrekoan “e” ikurra ikusten dutenean. Osakidetza erregistroan euskara lehenetsita dugunok ez dugu alde handirik sumatu urte hauetan, ez gaituzte ginekologo euskaldunarengana bideratu edo profesional euskaldunik ez dutelako ez digute barkamenik eskatu ezin dutelako gure eskubidea bermatu. Niri inork ez dit inoiz esan “euskara lehenetsia duzu eta itxaron pixka bat, ea euskalduna aurkitzen dudun”.

Zertan lagundu dezake eskumuturrekoak? Agian aurrez aurrekoan eta uanean unekoan eraginkorra izan daiteke. Alegia, profesionalak segituan ikus dezake ikurra eta berak eskaini arta euskaraz, pazienteak eskatu gabe. Eusko Jaurlaritza, albistea emateko zabaldu duen oharrean, ez du esaten profesionalak nola jokatu-ko duten. Profesionalak badaukate protokolo bat “e” ikurra ikusten dutenerako? Hitz egin dute hizkuntza eskubideez? Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko hizkuntzak duen garrantziaz?

Langileak ez badaki euskaraz dakienaren bila joango da?

Ongi etorriak euskal hiztunen hizkuntza eskubideak bermatzeko emandako pausoak, eraginkorrak badira bederen. Dena den, gogoan ditut Aitor Montes medikua eta Jon Zarate EHUKo euskararen alorreko errektoreordea. 2022an, EHU-ren udako ikastaro oso bat baliatu zuten eskaintza aktiboa kontzeptuaz aritzeko.

Ikastaroa iragartzeko oharrean horrela definitu zuten eskaintza aktiboa kontzeptua: “Hizkuntza zerbitzuak osasun erakundeek erabiltzaileen eta profesionalen arteko hizkuntza mugak gainditzeko eskaintzen dituzten zerbitzuak lirateke; izan giza-baliabideak zein teknikoak. Hizkuntza zerbitzuen eskaintza aktiboa haxe litzateke: lehenetsitako hizkuntza erabiltzeko gonbidapena, ahozkoa zein idatzizkoa; beti ere, eskaera baino lehenago eta erabiltzaileak eskatzera behartu gabe. Eskaintza aktiboa erakunde mailako neurrien multzoa litzateke, hizkuntza zerbitzuei ikusgarritasuna, eskuragarritasuna eta irisgarritasuna berma diezazkiena, erantzukizuna erakundeena izanik eta inola ere ez erabiltzaileena”.

Aitortuta, erregistratuta eta identifikatuta egonda ere, estres linguistikoa gure gorputzean bizi baitugu, eta sarri ez dugu lortzen nahi eta behar duguna: euskaraz egitea. ●

MELOI SALTZAILEA

Rowling ala Millerey



JUNE FERNANDEZ

Errepikatu nirekin: Sara Millerey. Ez dezagun ahaztu bere izena. Transfeminizidioaren bik-tima da Millerey: gorrototzaile transmisogino batek torturatu zuen, besoak moztu zizkion eta bizirik bota zuen ibaiertz batera. Bi orduko agoniaren ondoren hil zen.

Errazagoa da J.K. Rowlingen izena gogoratzea. Apirilaren 16an bere sare sozialetan ospatu zuen Harry Potter sagarekin irabazitako dirutzarekin babestutako kanpainaren garaipena: Erresuma Batuko feminista transgorrotatzaileen helegite baten ondorioz, Auzitegi Gorenak ebatsi du emakume transak genero berdintasun legeetatik baztertzea. Rowlingek purua eta whiskia eskuan, yate batean posatzen ospatu zuen bere garaipena sare sozialetan.

Bi hilabete lehenago zabaldu zuen Donald Trumpen argazki bat: emakume eta neskatila normatiboiez inguratuta ospatu zuen emakume transak kirol profesionalek baztertzeko egitasmoa. Pasa den udan, Melonik eta Mileik hedatu zuten Imane Khelif boxeolaria transexuala denaren buloa.

Ez da botere ultraeskuindarrek feminismoaren korrante erreakzionario batekin bat egiten duten lehen aldia. Ronald Reaganen garaian ere, Estatu Batuetako feminista abolizionistek gobernu eskuindarrarekin aliatu ziren prostituzioaren eta pornografiaren kontra egiteko. Bidean, isilarazi zituzten sexu langileen aldeko feministak. Biziki gomendatzen dizuet Gayle Rubin irakurtzea, bera izan zen hain zuzen ere erasoaldi horretan "kantzelatua" izan zen pentsalari feministetariko bat, LGTBQA+ eta BDSM komunitateetako, *portzierto*.

Ez da fenomeno berria, ez, ultraeskuinak eta eraldatzailea izan nahi duen mugimendu sozial baten barruko elite baten artean mamu bera elikatzea. Egun, konbentzitu nahi gaituzte Millerey bezalako lagunak direla gure eskubideen etsaiak, eta ez Trump bera bezalako gizon erasotzaile zigorgabeak edo Rowling bezalako emakume pribilegiatu ankerrak.

Ez diezaiozun euskal oasiaren iruzurrari eutsi. Zenbait euskal hedabidetan espazioak dituzte euskal feminista transgorrotatzaileek, hedabide digital euskaldunetan eta irrati libreetan barne, eztabaida konplexua delakoan.

Ez da hain konplexua. Argi daukagu sionismoa dela gaur egungo nazismoa. Bada, ez ahaztu naziek, judu, komunista eta ijitoez gain, LGTBQA+ komunitatea zutela jomugan. Rowling eta Millereyren artean erraza izan behar luke argi izatea nor den zapaltzailea eta nor zapaldua. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



EKONOMIA

Grebak, sistema eraldatzeko



NAROA ELORTZA
GORRORTXATEGI

ARGIAren efemerideen kanalean topatu dut berri zaharra: 1918ko apirilaren 23an, Irlandako langileek greba orokorra egin zuten I. Mundu Gerrarako derrigorrezko erreklutamenduaren aurka. Langileen eta independentziazeleen erantzunari esker, Britainia Handiak atzera egin behar izan zuen.

Ez gara hain urrun joan behar, baina, greba arrakastatsuak aipatzeko. Horietako bat da Amazon-en SDR azpikontratan izandako garaipen handia, *SDR Amazon. Erraldoia belauniko* liburuan topatu dezakezuen. Langileen duintasuna lortzeaz gain, Amazonek duen azpikontrata-sarean pitzadura sortu du, eta kapitalismo bortitzaren ikurretako bat kolpatu eta borrokarako aukerak biderkatu ditu.

Langileon antolakuntzaren indarrak kontziente, borroken kriminalizazioa egunerokoa dugu komunikabideetan. Behin eta berririo helarazten zaizkigu sindikatuen eta greben aurkako mezuak, sotil batzuetan, baldar gehiegitan. EAEko Hezkuntza Saila, esaterako, baldar xamar ikusi dugu azken aldian; hilabeteotan, gurasoak eta langileak bidalitako eskutitzak jaso ditugu, sailburua entzun dugu esaten irakasleei soldata bakarrik axola zaizkiela, baita hori dela eta legebiltzarrean gezurretan aditu ere. Gainera, negoziazio mahaian joko zikina izan dela jakin dugu sindikatuen eskutik: elkarriketa bilateralak, batasun sindikala hausteko saiakerak, edukirik gabe deitutako bilerak... Hezkuntza publikoaren alde baino, beste interes batzuen alde nabari da Hezkuntza Saila.

Borroka honi esker gure txikiak jasotzen ari diren hezkuntza politikoaz harro, kalitatezko hezkuntza publikoaren alde alboan izango gaituzue, guraso eta langile gisa, zuen borroka gurea ere badelako. Ea berandu baino lehen hezkuntza publikoko grebalariei garaipena jasotzen duen liburu bat gomendatu dezakegun, joko zikinaren kronika eta guzti. ●

ANALISIA



Denok gaude katean

URKO APAOLAZA AVILA

Urtarrilaren 29an, gaur egungo mundu berekoi honetan ohituta ez gauden zerbait gertatu zen Laudioko Guardian lantegiaren atarian. Zuzendaritzak hango labea itzaltzeko asmoa erakutsi zuen, eta horri aurre egiteko, langileek atea blokeatu zuten pankarten bidez. Baina ez zeuden bakarrik: inguruko fabriketako langileak batu zitzaizkien mobilizaziora. Babes hori, eskualde osoan bizitako giroaren isla baino ez da. Hurrengo asteburuan 2.000 lagun baino gehiago elkartu ziren Laudion, herri hartako inoizko manifestazio jendetsuenean.

Euskal Herriko eskualde industrial askotan azkenaldian bizi duten lantegien itxiera dramatikoaren aurrean, gero eta maizago ari gara ikusten halako elkartasun keinuak eta erakustaldiak. Apirilaren 8an, Basaurin, Bridgestoneko 335 langileren lanpostuak defendatzeko manifestaziora 3.000 pertsona batu ziren. Sindikatuek egindako greba deialdiek, berriz, %100eko jarraipena izan dute. Plantillan 800dik gora dira, baina "inor ez dago soberan", dio langileetako baten buzoaren bizkarraldean eskuz margotutako esaldiak. Ezkirozeko BSHko langileek Alemaniako 18.000 lankideren babesa jaso dute idatziz, eta Sunsundeguikoei hamaika herritarren animoak bildu dituzte Altsasun, baita enpresa likidazioan sartu den egun zailenetan ere.

1975ean Potasas de Navarrako 47 meatzarien itxialdi ezagunaren 50. urteurrena gogoratu dute toki askotan aurten. Baina protesta hori ez zen posible izango elkartasunik gabe. Zuloan itxi eta berehala beste enpresetako lankideen babesa jaso zuten, eta grebara 20.000 langile batu ziren azkenean, baita irakaskuntzako eta ostalaritzako jende ugari ere. Denek sentitzen zuten zerbait gehiago zegoela jokoan. Orain ere, Aiaraldetik Sakanaraino eta Iruñeritik Ezkerlarralderaino, nabari da hau ez dela enplegu galera soil bat, eskualde horietan lan eta bizitzeko eskubidea dagoela jokoan, denok gaudela katean.

Duela 50 urte bezala, orain ere enpresariak, inbertitzaileak, eliteak, boterea, saiatuko dira langileak zatitzen, borrokan jarraitzeko tematzen direnak zigortzen, eta estrategia ankerrenak erabiliko dituzte euren helburua lortzeko: etekin ahalik eta handiena lortzea kostu txikienarekin. Hori da kapitalismoa amigo. Baina horren aurrean, Guardinanen nola Sunsundegin, edo beste edozein tokitan, badago zerbait desinbertsio plan zorrotzenak itzali ezingo duena: azkeneraino borroka egitearen duintasuna. ●

51.200

palestinaretik gora hil ditu
Israelek 2023tik, eta horietatik
1.800 baino gehiago su
etenaren ostean. 2025eko
apirilaren 20an jasotako datuak
dira, baina ordutik aurrera ere,
sarraskiak ez du etenik.

%31

Indarkeria matxistagatik
salatutako kasuen %31tan
ez ziren babes neurriak
hartu 2024an, Hego Euskal
Herrian. Botere Judizialaren
Kontseilu Nagusiaren Etxeko
eta Genero-Indarkeriaren
aurkako Behatokiak
emandako datua da.

%94

irakasle emakumeak dira, Haur
Hezkuntzan. Lehen Hezkuntzan,
irakasleen %67 dira emakumeak
eta DBHn %54. Alegia, Unescok
emandako mundu mailako
datuen arabera, ikaslea zenbat
eta adinez txikiagoa izan,
orduan eta feminizatuagoa da
irakasle lana.

*“Marikoi, marika, bujarra, maritxu
edo atzelari deituta, naizena
izatearen ohorea eta harrotasuna
baino ez didazu berresten”*



ADUR EZENARRO

Ordiziako alkateak hala erantzun die
bere aurka egindako pintaketa
homofoboei: “Niri dagoeneko
ez didate minik ematen,
baina belaunaldi berriek
ez dute halakorik merezi”.

2025-04-27

*“ARGALARIOKO PARKE
EOLIKOAK ERAGIN
KRITIKOAK IZANGO LITUZKE
INGURUMENEAN”*

Bizkaiko Foru Aldundiaren Natura Ondarearen Zerbitzuak txosten
bat aurkeztu du Barakaldoko mendi horretan bost haize errota
jarri nahi dituen Iparaixe II proiektuaren aurka.

2025-04-22

*“Otsoaren babesa bermatzeko,
premiaz neurriak
har ditzala eskatu diogu
Espainiako Gobernuari”*



EKOLOGISTAK MARTXAN

2025-04-22

Esnearen bidea



DIANA FRANCO EGUREN

Automatizazioaren eta abereen inguruan kuxkuxeatzen ari nintzela, ukuilu automatizatuaren informazioa hasi naiz eskuratzen. Nire idazmahaiaren erosotasunetik idazten, gizakion kontsumorako modu masiboan esplotatzen ditugun abereen bizitzak nahiko penagarriak direla iruditzen zait, baita haiekin lan egiten duten pertsona askorena ere. Badirudi dugun kontsumo ereduan ez dela erraza bizitza aurrera ateratzea animalien ustia ketari loturiko jardueretan. Horregatik, animalien gorputzak kontsumo ondasun bilakatzeko prozesua oso aztertua izan da betidanik, eta horren emaitza da gaur egun ukuiluak neurri handi batean automatizatzeko aukerak sortu izana. Teknologia horien sortzaileek animalien eta euren jabeen bizi-kalitatea hobetzeaz gain jardueraren jasangarritasun ekonomikoa ziurtatzea dute helburu. Ukuilu automatizatuaren gorotza eta zikinkeria garbitzen dituzten robotak daude, belarra ebakitzen dutenak, behientzako jana prestatzen dutenak, elikagaiak banatzen eta antolatzen dituztenak, modu automatizatuaren behiak jeztzen dituzten robotak... Pentsa, behiek "ikasi" dute jetziak izateko ilara modu autonomoan egiten. Behien jokabideak ere, zintzarri elektronikoen bidez, ukuilu automatizatuak gobernatzen dituzten adimen artifizialek kontrolatzen dituzte: animalien konstanteak, kokapena, egitekoa...

Robot horietatik batek eman dit arreta, bereziki: errape robota. Txahalek esnea errape artifizialen bidez hartzen dute. Hartzen duten esnea ez da freskoa, hauts esnea da. Badirudi sistema horretan txahalak amengandik banatzea eraginkorragoa dela, ondoan jetziak diren amek sortzen duten esne barik, kanpotik ekarritako esne hauts industrialia baliatuta. Hauts esne hori beharbada oso ona da, guraso askok erabili izan dugu. Baina deigarria da bizidunen arteko harremanak murriztea sistemaren eraginkortasuna handitzeko ohiko bilakatu dela diseinatzen ditugun teknologietan. Gizakiok ukuilu automatizatuaren barne bizi garela dirudi, "esnearen" bilakaeraren menpe. ●

Baso erresilentea proiektua Urduñan



MAIDER RAMIREZ MARTIN / AIARALDEA

Urdun Baso Erresilentea proiektu pilotua jarri dute abian, sute-arriskua murrizteko eta lurzoruan karbonoa finkatzeko irtenbide naturaletan oinarritutako ekimena. Proiektuaren xede nagusia 109. mendia mosaiiko itxurakoa bilakatea da, horrela, erregenerazio naturala bultzatu eta baso-erregaien metaketa ahalik eta gehien txikitze.

Hori lortzeko, lau helburu definitu dituzte: alde batetik, sute-arriskua murriztea, mendia modu jasangarrian kudeatzearen ondorioz; bestalde, paisaiaren kalitatea hobetzea, eta itxura anitzago bat ematea. Era berean, mosaiiko-paisaia berreskuratu nahi dute, baso, larre eta sastraka-eremuak konbinatzearen bidez. Azkenik, tokiko abeltzaintza-sektorearentzako aukera berriak sortzea dute xede.

PARTE-HARTZEZ GARATUTAKO EKIMENA

Hainbat eragilek parte hartu dute Baso Erresilentearen garapenean, hala nola Urduñako abeltzaintzak eta Udalak berak, Ekoizpen Urduña dinamizazio agroekologikoko zer-

bitzuaren bitartez. Horretaz gain, funtsezkoa izan da Errotuz erakunde teknikoaren laguntza, basoen kudeaketa jasangarriarako eta biodibertsitatearen kontserbaziorako ikerketa aplikatua espezializatutako instituzioa baita.

Hasierako fasean, batez ere, oso garrantzitsua izan da tokiko abeltzaintza-sektorearen lana. Izan ere, haien abereek mendia garbitzen lagundu dute, eta ezinbesteko papera izan dute larreak berreskuratzeko orduan.

ETORKIZUNeko IKUSPEGIA

Baso Erresilentearen proiektu pilotu hau Urduñako 109. mendian jarri dute martxan, azken bi hamarkadetan bertan ganadurik egon ez denez, landarediaren metaketak sute-arrisku nabarmena baitzekarren.

Hala ere, suterik ez gertatzea ez da proiektuaren helburu bakarra. Oro har, mendi jasangarriagoak lortzea izango da xedea. Hortaz, 109. mendia aintzindaria izan bada ere, Urduñako Ondasun Publikoko beste mendi batzuetara zabaldu nahi dute dinamika etorkizunean. ●



TXARLAZO MENDI TALDEA

Maiatzaren erdialdean hautatuko dute hurrengo aita santua

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

88 urterekin hil da Frantzisko aita santua apirilaren 21 goizean, iktus baten ondorioz. Azken boladan osasun arazoak izan zituen.

Hamabi urtez izan da Jorge Mario Bergoglio argentinarra Eliza katolikoa-ren buru, Frantzisko I izengoitiarekin. Askoren ustekaberako heldu zen kargura, espero gabe ere karguari uko egin baitzion Benedikto XVI.ak; ordura arte normalena zen aita santu berria hautatzea behin aurrekoa zenduta, ez karguari muzin eginda. Frantzisko aita santua Europatik kanpo jaiotako lehenbiziko aita santua bilakatu zen.

88 urterekin zendu da, iktus batek jota, azken hilabeteotan osasun arazo larriak izan ondotik. Hilabete inguru eman zuen Erromako ospitale batean, pneumoniak larri jota. Hilabete lehenago eman zioten alta, eta Eliza katolikoa-ren jaiegunek iraun bitartean, Aste Santuan, Vatikanon egon da. Esaterako, hil bezperan, Aste Santuko Berpizkundearen Igandean, jendaurrean agertu zen bedeinkazioa emateko. Hori baino lehen, AEBetako presidenteorde JD Vanceren bisita jaso zuen Vatikanon.

Frantzisko aita santuaren hileta apirilaren 28an egin da, eta kardinalen kongregazioak ezarriko du hurrengo aita santua hautatzeko konklabearen hitzordua. Maiatzean izango da. Vatikanoko araudiak dio heriotzatik bi edo hiru astera izan behar duela. Orduan, 80 urte baino gutxiagoko kardinalak Kape-ra Sixtinoan bilduko dira eta aita santu berria aukeratu arte isolatuta egongo dira, kanpoaldearekin komunikaziorik gabe. Aukeratua izateko, hautagaiak botoen bi herenen babesa beharko du; bozketa sekretua izaten da, boto-paperekin bidezkoa, eta lau aldiz egiten da goizean, behar beste egunez segidan, aita santua aukeratu arte.

BATZUEK BEGIKO ZUTEN AITA SANTUA

Frantzisko aita santuaren "konpromiso soziala" nabarmendu dute nazioarteko



Oro har, txiroenen alde egindakoa goraipatu diote Bergogliori, eta aho bizarrik gabe hitz egiten zuela, ildorik kontserbadoreena aurka edukita

hainbat eragilek, besteak beste, Europako erakundeek. Hego Euskal Herriko bi gobernuek, esaterako, hiru eguneko dolu egunak ezarri dituzte, Espainiako Gobernuak egin moduan. "Zaurgarrien alde egindako lana" goratu diote. Europako Batzordeko presidente Ursula von der Leyenek, bestalde, Frantziskoren "umiltasuna eta zorigaiztokoaren aldeko maitasuna" nabarmendu ditu; haren iritziz, "mundua bidezkoago, baketsuago eta errukitsuago baten alde" egin zuen lan. Era berean, atsekabea adierazi dute

Errusiako eta Ukrainako goi agintariek, baita AEBetakoek ere, eta Hamas erakundeak, bere aldetik, azpimarratu du "Palestinako herriaren eskubide legitimoen defendatzaile sutsua" zela aita santua.

Oro har, txiroenen alde egindakoa goraipatu diote Bergogliori, eta aho bizarrik gabe hitz egiten zuela, ildorik kontserbadoreena aurka edukita. Besteren artean, kapitalismo garaikidea kritikatu zuen adierazpenen batean baino gehiagotan, "txirotasuna elikatzen duelako", eta, bide horretan, estatuek merkatuan esku hartzea ontzat jo zuen, nahiz inor horretara bideratzea lortu ez. Ukrainako bandera eskuetan ere agertu zen behin, tematuta baitzegoen bake prozesua bideratzearekin. Eta, nagusiki, migratzaileen eskubideen alde egindako lana goratu zaio, besteak beste, kargua hartu eta segituan Lanpedusara egin baitzuen bidaia. Amets Arzallusek eta Ibrahim Baldek idatzitako *Miñan* liburua gomendatu zuen kazetariekin egindako bidaia batean. ●

INDIA ERDIALDEAN, IDORTZE GLOBALARI AURRE EGITEKO LABORARIEN ETA IKERTZAILEEN ELKARLANA

Klima aldaketaren eraginez, munduko lurralde gero eta gehiago idortzen ari dira, milioika pertsonaren jarduera eta bizimoduak kolokan ezarririk. Fenomeno horren frontearen dago India erdialdeko Maharashtra estatua, non klimaren berotzeari

eta lehortearekin metatu zaizkien oihan soil- tzearen ondorioak. Halere, agronomo eta laborarien arteko elkarlanean oinarrituta- ko tokiko ekimen batek egoera iraultzea lortu du, basamorturako bidean zihoazen lurak emankorrak bihurturik.

 NICOLAS GOÑI

Munduko lurren %40 idorrek dira, eta bereziki kezagarria da azken hiru hamarkadotan %7,25 gehiago izan direla bazter berdeak izateari utzi dioten lurrrak, gaur egun lehorte iraunkorrean sarturik. Kopuru horiek irudikatzen laguntzeko, Kanadaren azalerakoak dira idortu berri diren lur guztiak, Gorka Peñagarikanok ARGIAko *Idorrek dira munduko lurren %40, eta lehorte bidea egin dute lurren %75ek* iazko abenduko artikuluan azaltzen zuen bezala. Joera honek jarraitzen badu, mende amaierarako, 5.000 milioi pertsona baino gehiago biziko lirateke lur idorretan. Bilakaera horren errua nagusia zein den jakiteak ez zaituzte harririk: klima aldaketa. Baina horri askotan gehitzen zaizkio tokian tokiko ur baliabideen erabilera, oihangintza edo laborantza praktika desegokiak, arazoa arindu baino larritzen dutenak. Adibidez, euri eskasak laborantzako etekinak murriztu ondoren, etekinen jaitziera konpentsatzeko laborantzako lurren azalera emendatu nahi izatea eta horretarako oihanak moztea. Edo, euri- ura gordetzeko urtegi handiagoak eraikitzea, ur hori inguruko ekosistemetatik kenduta eta beraz ingurua azkar- go lehortuta eta hauskortuta.

India erdialdeko Maharashtra esta- tuan lehortearekin loturiko arazoak ez dira arrotz. Bere geografarengatik, klima

lehorra da nagusi, mendebaldeko Sah- yadri mendiek itsasotik datozen ho- deiak oztopatzen dituztelako. Horren ondorioz, estatu horretako Latur bar- rrutian, adibidez, urtean 600 milime- tro euri baino gutiago dute, martxotik ekainera maiz egunez 40 gradu ingu- ru egon daitezkeelarik. Bertakoek ura nagusiki Manjira ibaitik hartu ohi dute, baina mendearen hasierako lurralde kudeaketa desegokiarengatik ibaiaren arroko urak zaluago isurtzen hasi ziren, bertako akuiferoa gutiago elikatuta eta ibaia bera lokaztuta. 2010ko hamarka- dan, adibidez, ur edangarri krisi handia eragin zien egoerak. Hori nahiko zai- la ez balitz, klima aldaketaren eraginez montzoien sasoiko euriak bortitza- goak bihurtu dira, uholdeak edota lur lehe- r- tzeak sorturik, eta ur baliabide arazoak areagoturik.

ARAZO GLOBALARI TOKIKO KONPONBIDEAK

Ez da beharbada menturazkoa Latur bar- rrutia hautatu zutela 2023an hidrologia eta laborantza ikerketa pilotu baterako, ICRISAT Nazioarteko Tropiko Erdi-leho- rrentzako Labore Ikerketa Erakundeak eta GSDA Lurpeko Ur Jarraipen eta Gara- pen Agentziak. Matephal izeneko herri bateko 440 etxalde txikik parte hartu zuten, gehienak bat eta bi hektarea ar- tekoak izanik. Interbentzio esangura-

tsuak eta eraginkorrak diseinatzeko, zehazki jakin behar zuten egoera zein zen; eta dimentsio anitzeko analisia bu- rutu zuten, martxan zeuden laborantza praktiken jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ekologikoa aztertzeko. Aldi be- rean, lur baliabideen inbentario bat egin zuten, lur sail bakoitzaren ezaugarriak eta ahalezko erabilerak zerrendatzeko. Azterketa hidrologikoa zen hirugarren hanka, ur eskuragarritasuna, akuiferoen berrosatzeko potentziala eta zaurgarri- tasunak ezagutzeko asmoz. Hori dena ongi neurtu eta gero, ur baliabidea sen- dotzeko neurri proposenak zehazten ahal zituzten, baita laborantza prakti- ka hobetzeko konponbide holistikoak diseinatu ere. Komunitatearen parte- hartzea zabala zen proiektuan, eta ga- rrantzitsua zen hainbat elementu ongi doitzeko: etxaldeetako sistemak, lurral- de mailako konponbideak eta merkatu- ratze estrategiak, finean, diru sarrerak hobe bermatzeko.

Urari dagokionez, euri sasoian ura bil- tze- ko teknikak garatu zituzten –putzuak etxe inguruetan edo soro bazterretan– baita etxeetako ura birziklatzeko ere. Soroen hesietan lurrezko pareta apalak eraiki zituzten, eurite handietan higadu- ra murrizteko eta urak bertan gordetze- ko. ARGIAren 2.870 zenbakiko *Ekialdeko Afrikan, oztopoak oztopo, eurite aldake- tei egokitze- ko ekimenak martxan erre-*

portajea aipatzen genituen Balutxis-taneko harritzko terraza moduko urtegi apalen antzekoa da teknika hori, baina maila txikiagoan. Laborantza praktikei dagokienez, lugorrian utzitako hainbat lursail berriz lantzen hasi ziren. Landa-re aniztasuna zabaldu zuten ere, uzta txarren arriskuak leuntzeko eta diru sarrearen egonkortasuna laguntzeko. Bere-ziki, fruta-landareak sartu zituzten xede horiekin. Hainbat etxaldetan laborantza organikoa martxan jarri zuten, ongari sintetikoaren menpekotasuna murrizteko eta lurren emankortasuna hobetzeko. Laborari gehienek lekadunak, zituak, artatxikia eta barazkiak hazten zituzten, lurrazalaren erabilera optimizatzeko eta lurzoruko bioaniztasuna emendatzeko.

Horri gehitu zitzaion zientzialarien eskuko jarraipena: kalitate oneko hazien hornitzea, produktibitate eta germinazio tasa handiagoak dituztenak, eta lurzoru analisiak, eremu bakoitzeko nutriente behar zehatzak aztertzeke.

BAZTERRAK ERALDATU, BIZITZAK ERE BAI

Emaitzak nahiko azkar ikusten hasi ziren: putzuetan eurien biltzea eta etxeetako uren birziklatzeak geruza freatikoa igoarazi zuten 500 hektareatan –hau da, piloto eremuaren erdia baino gehiagotan–. Maila freatikoa igo dela erranik, ez da zentimetro gutiko kontua, baizik eta lau metroko igoera, pilotu eremutik kanpoko lurrekin alderaturik. Lugorriak berriz lantzeak landutako azalera 30 hektareaz emendatu zuen. Laboreen etekina montzoi sasoiaren %30 igo zen, horrek etxalde bakoitzari batezbertzekoan 97.000 errupia inguru ekarri zizkiolarik –1.000 euro inguru, hots, emendio handia Indiako bizi-kos-



LABORANTZAN ERAGINA. Matephal herriko laborariak uzta biltzen. Argazkia: ICRISAT.

Lehorteari askotan gehitzen zaizkio tokian tokiko ur baliabideen erabilera, oihangintza edota laborantza praktika desegokiak

tua kontuan harturik–. Gainera, Napier izeneko bazka belar bat agrosistemetan

sarturik, abereen esne ekoizpena ere nabarmen igo zen.

Ekimen horren arrakastak ongi erakusten digu eremu tropikaleko laborari txikien bizimoduak hobetzeko ahala dutela metodo integratuek: agrosistema eta bazterren moldaketa, merkaturatze egokia eta klimaren aurreko erresilientzia uztartzen direlarik, jarraipen zientifiko aski zehatz batekin, elikadura ekoizpenaren jasangarritasuna eta sendotasuna nabarmen hobetzen dira. Klima aldaketaren aurkako borroka ez dela oraindik galdua erakusten digute Matephal herriko laborariak. ●



Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Alicia Valdés

ARRAZOIMENETIK HARAGO



ZURE AUZOKO MONETA SOZIALAK EZ DU EUROA ERAITSIKO, BAINA BIZITZA BIZIGARRIAGOAK SORTZEN DITU



Ukaezina da: gure mundua latza da izaki bizidunen gehiengoarentzat; orduan, zergatik ez dugu alternatibarik desiratzen? Galdera horri erantzun nahian, eta bestelako mundu eta modu batzuk egiaz abian daudela erakusteko, liburu bat idatzi du Alicia Valdés politologoak. Donostiako Kaxilda liburu-dendan aurkeztu zuen martxoaren amaieran.



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Política del malestar. Por qué no deseamos alternativas al presente (Egonezinaren politika: zergatik ez dugu orainarekiko alternatibarik desiratzen) kaleratu duzu. Nondik abiatu zen idazketa, eta zer lotura du zure aurreko lanarekin, *Towards a New Lacanian Left* (Ezker lacandar berri baterantz)?

Debate argitaletxeak politikari eta psikoanalisiari buruzko liburu bat kaleratu nahi zuen, eta niri proposatu zidaten. Jendeak diru truk idazten du: hori mahai gainean jartzea garrantzitsua eta zintzoa da. Hori batetik. Gero, zuk aipatzen duzun beste liburua nire doktore-tesia da; nik, tesian, psikoanalisi lacandarra eta filosofia politiko feminista aztertu

nituen, eta bigarren liburu honek aukera ematen zidan, nolabait ere, tesiko edukiak lurreratzeko, itzultzeko, eta bestelako publiko batengana iristeko.

Psikoanalisiak mesfidantza eragiten du. Baina, liburuan diozun eran, “psikoanaliaren aplikazioak izan duen joera heteronormatiboaz eta androzentrikoaz ohartzeak ez dakar [psikoanalisi bera] subertsio-iturri gisa baztertzea”. Zu zeu nola hurbildu zinen korrante horretara?

Gaztetan hasi nintzen Freud irakurtzen, asko interesatzen zitzaidan ametsen kontua. Helduaroan, militantzia anarkistak eta feministak neure bizitzan indarra hartu heinean, psikoanalisitik

urrundu nintzen, hain zuzen psikoanalisiari buruz eduki ohi den irudipenarengatik. Baina filosofia politikoko masterra egin nuenean, irakasle batek, Sonia Arribas, Lacan ezagutarazi zidan, eta horrek dena aldatu zuen. Zientzia politikoetan, jokaera politiko oro subjektu-mota jakin baten bitartez azaltzen zen –zeina ez baita psikoanaliaren subjektua–, eta niri iruditzen zitzaidan azalpen teoriko horiek ez zetozeela bat, gerora, subjektuek egiaz zituzten jokamoldeekin. Eta tesiarekin hasi nintzenean argi ikusi nuen psikoanaliaren bidetik segitu nahi nuela. Oso marko indartsua iruditzen zitzaidan. Noski, genero-berrikuspen bat behar zuen, baina merezi zuen.



Alicia Valdés

ASTURIAS, 1992



Politologoa eta Humanitateetan doktorea. Unibertsitateko irakasle gisa lan egiten du. Teoria psikoanalitikoari eta politika intersektionalari buruzko tesia egin zuen, eta subjektibitatea, gorputza, identitateak eta desira lantzen ditu, hainbat diziplina uztartuz. Gaur egun, ipuinak idazten ari da, eta irribarre eder bat ateratzen zaio, barru-barrutik, horri buruz galdetzen diotenean.

Zerk erakarri zintuen gehien?

Gabeziaren kontzeptuak. Subjektua ulertzea subjektu zatikatu gisa, subjektu ez-harmoniatu gisa: hori oso baliagarria egin zitzaidan. Pentsatuen: hementxe da. Bestela, filosofia politiko kartesiarrak ez du kontraesana ulertzen, ez dio bere buruari baimentzen kontraesana ulertzea.

Subjektua zera guztiz arrazionalizat hartzen duen ikuspegiaren mugak zein dira?

Begien bistan dauzkagu gaur egun: ikusi egiten ditugu, bizi egiten ditugu. Baldin eta, subjektua, esan izan diguten bezala, guztiz arrazionala bada; bere borondatearen eta kontzientziaren arabera bakarrik ekiten badu; subjektu askea, independentea eta autonomoa bada; subjektuak benetan horrela jardungo balu, gaur egungo jokamolde asko ezingo genituzke ulertu. Eta uste dut horixe dela muga nagusia: zerbait azaltzen saiatu ordez, besterik gabe irrazionaltasunaren tiraderan sartzea.

Maiz esaten da boto-emailea ergela dela: gutxiago dela intelektualki eta moralki. Baina hori ez da analisi politiko bat, hori epai moral bat da, balioiritzi bat, eta hori egin nahi baduzu, ba ados, baina ez esan analisi politiko bat denik. Horrek egonez handia sortzen zidan, iruditzen zitzaidan ikuspegi pixka bat irekiago batetik erreparatu behar zitzaiola gaur egun gertatzen ari denari, zeren ez baduzu subjektuaren eta fenomenoaren diagnostiko on bat egiten, zer arraio eskainiko diozu jendeari?

Liburuan hainbat aldiz aipatzen duzu honako galdera hau: zergatik ematen dio botoa langile batek eskuin muturrari?

Galdera hori ez da iparrorratz bat izan niretzat, ez du nire hausnarketa gidatu, baina lagungarria suertatu zait gertatzen ari dena mahai gainean jartzeko. Jende askok buruan darabilen galdera da. Ezkerrak irabazten ez duen hauteskunde-prozesu ororen ostean, jende askok esaten du langileak ergelak direla, gu denok ergelak garela, ez dakigula botoa ematen, baina nik uste dut apur bat harago joan behar dugula.

Niri, galdera hori planteatzen denean, ea zergatik, pentsatzen dut: eta zergatik ez? Gaur egun, gauzak arrazionalak edo irrazionalak diren erabakitzeke, honela sailkatzen dira: zerbai-

tek mesede egiten badie zure interes materialei, orduan arrazionala da, eta ezezkoan, irrazionala da. Baina Marxek jada azaldu zuen hori dena, kontzientzia faltsuaren kontzeptuarekin. Kontzientzia faltsua da subjektu batek jardutea bere baldintza materialak ulertu gabe edo aintzat hartu gabe. Kontua da, ordea, interes materialez aparte, bestelako interesak daudela; kontua da badagoela interesen sorta zabal bat materialtasunarekin zerikusirik bate-re ez duena, edo materializat hartzen dugunarekin behintzat. Eta uste dut horrexetan eragin behar dela. Pertsona hori ez da bere interesen kontra ari; kontua da bere interesak ez datozela bat bere baldintza materialekin edo beste ezein interesekin.

Beste ideia bat: desira ez da inoiz guztiz asetzen; motore gisa jarduten du, beti. Esango nuke kosta egiten zaigula hori onartzea.

Sistema bat asmatu dugu, sistema ekonomiko, politiko eta sozial bat, zeinetan esaten baitzaizu desira erabat asetzea posible dela, orduan, noski, kontrakoa esaten dizutenean sekulako krisia pizten zaizu. Konplexua da. Liburuaren harira asko galdetzen didate: "Aizu, eta proposatzen duzun hori, ez al da gogorra onartzen?". Psikoanalisi, zentzu horretan, albiste txarren subjektua da, baina ez dakit, niri gustatzen zaizkit bizitzaren gatza eta piperra. Desira benetan aseko balitz, horrek esan nahi luke jada ez zenukeela inoiz gehiago ezer desiratuko, eta horrek, niri, ba... Uste dut, funtsean, gabezia onartzea dela gakoa.

Zure esanetan, psikoanalisiak argitara ekartzen ditu "gure egonezinaren sintomak sortzen dituzten gatazkak", baina "ez da terapeutikoa izango".

Ez-guztiaren logika da, ez unibertsalizatzearen logika: psikoanalisiak berrezkoa du logika hori, baina baita feminismoak ere. Epistemologia feministan aldiro esaten da gauzak ezin direla unibertsalizatu, ez baitago esperientzia unibertsalik. Ba psikoanalisian berdin: logika totalizatzailea ez dela posible onartu behar da, etengabe.

Horren haritik, eta zehazki zure galderari helduta, gaur egun saltzen den esperientzia terapeutikoan, badirudi esaten dizutela: segi terapiara eta zure arazoak desagertuko dira. Eta ezke-



rrren aldetik ere halako zerbait esaten da: gobernura iristen garenean, adarbakarrak eta ostadarrak gailenduko dira; eta maila politikoan saltzen dizkigute halako zerumuga guztiz bikain batzuk. Baina psikoanalisian ez dizugu esaten aurrerantzean ez duzula arazorik izango; ez, arazo berriak izango dituzu, baina akaso arazo berri horiekin bizitzeko gai izango zara.

Esaterako?

Asturiasera itzuli naiz orain dela gutxi; aspalditik egin nahi nuen gauza bat. Baina, noski, zuk aldaketa bat egiten duzunean zeure bizitzan, kasu honetan Madriletik eta Bartzelonatik alde egitea, jende askok pentsatzen du hori eginda erabat zoriontsu izango dela, leku berrian ez duela arazorik izango; ez, lazta-na, arazoak izango dituzu leku berrian ere, kontua da daukazun arazoekin bizi ahal izatea. Zeharo desberdina da.

Orain, nire arazoak bestelakoak dira. Beste bizimodu bat daukan hiri batean bizitzeak ez dit zero problema sortzen, baina sortzen dizkidan problemekin eta egonezinarekin bizi naiteke. Hori onartu behar duzu. Jende askorentzat ez da narratiba desiragarri bat izango, baina niri balio dit, eta beste askori ere bai, eta

idea hori planteatzea behintzat interesgarria iruditzen zitzaidan.

Ez-guztiaren logikaren barruan, gaur egun martxan dauden alternatibak aipatzen dituzu.

Hasteko, argi utzi nahi dut honako hau: pentsamendu kritikoak ez badu mobilizatzen, ez da kritiko. Ni militantziatik nator, eta eskatu izan dut eta nahi izan dut horrek errealtatearekin eta proposamenekin eta ekintzarako deiarekin zerikusia izan zezan. Funtsezkoa iruditzen zait.

Gero, ea nola eraman ditzakegun psikoanalisiaren ekarpenak errealtatera, edo zein den horren praxia. Ba, begira, ideia honekin lotuta dago: egia da, nire asanblada feministak ez du heteropatriarkatua deuseztatuko; edo, beganismoaren adibidea jarri genuen atzo: zuk, Valladoliden, animaliarik jaten ez baduzu, horrek ez du ekarriko Sorian txerriak hiltzeari uztea, baina orduan zer, zuk ez duzunez hori lortzen, zure ekintza alde batera utzi behar zenuke? Logika horixe

saltzen digute: zure jokaera ez-hegemonikoa ez bada hegemoniko bihurtzen, orduan, uztazu. Baina hara non

logika anarkistetatik beste zerbait esango genizukeen.

Bai, zure jokaera ez da hegemonikoa, zure ekintza ez da hegemonikoa, zure auzoko moneta sozialak ez du euroaren, dolarren edo yenaren inperioa eraitsiko, baina bizitza bigigarriagoak eratzen ditu.

Hortik kanpora, bizi garen sistemak, kapitalismoa deritzon sistemamunduak, etsipenera garamatza.



Logika horixe saltzen digute: zure jokaera ez-hegemonikoa ez bada hegemoniko bihurtzen, orduan, uztazu“

Ez-guztiaren logika honek, nire ustez, desblokeatu egiten gaitu. Bestela, erabateko inpotentzia sentitzen duzu.

Bai, horrekin lotuta dago. Genozidio bat egiten ari dira, ekozidio bat gertatzen ari da, eta zu, bitartean, lanean zaude, edo etxean, *scrolleatzen*. Konplexua da, eta min eta egonez handia sortzen du. Uste dut, batzuetan, gure aktibismoak mugak dituela onartzeak aktibismoan jarraitzea ahalbidetzen digula. Zentzu horretan, militantziak atseginagoa izan behar luke: gure aktibismoa neurtzen baldin badugu

sistema aldatzeko garaian ditugun arrakasten arabera, beti jasoko ditugu ebaluazio txarrak. Beste norantza batean jo behar dela uste dut.

Afektuei eta laguntasunari buruz ere idatzi izan duzu, baina afektu zein laguntasun erradikalen garrantzia azpimarratuz.

Badirudi laguntasuna guztion ahotan da-bilela orain. Kontzeptu bat horrela agertzen denean, nonahi, berrikuspen kritiko etengabea egin behar dugu; eta ikusi behar dugu ea zeri buruz ari garen laguntasunari buruz ari garenean. Hau da, ez dezagun korrontearekin bat egin besterik gabe, zeren bizi garen sistemaren korrantea, kapitalismoa, maltzur samarra da. Laguntasunaren kontzeptua agertzen dela? Kapitalismoak dio: ze ondo, horra merkatu-hobi berri bat. Afektuak agertzen direla? Kapitalismoak dio: bikain, dirutza egingo dut. Niri horrek atzerakada eragiten dit, zeren, elementu bat modan jartzen bada, logika kapitalistek fagozita-tu dezakete, eta adi ibili behar dugu.

Laguntasunaren hausturaz hitz egiten duzu. Eta zera diozu: laguntasuna, lotura huts bat baino

gehiago, ekintza bat dela.

Gaur egun asko hitz egiten dugu loturez eta harremanez, eta nik pentsatzen nuen: lotura oro al da zilegi? Ez dakit, nik lotura asko ditut neure bizitzan nahi ez ditudan pertsonekin. Hau da, loturak ditugu kalte asko egin diguten gure familiako kideekin, tratatu txarrak eman dizkiguten jendearekin. Orduan, ez dakit lotura bera den erradikala, ala gertatzen dena, ekintza.

Laguntasunaren testuarekin, *Política del malestar*-ekin bezalaxe, idatzi ahal-a, gertatzen ari zitzaidanari erantzunak ematen ari nintzen. Garai hartan bi laguntasun-haustura izan nituen, oso mingarriak. Jada ez nuen nahi pertsona horien laguna izan, baina ez zen haiek utzi nindutela; nik hautsi nahi nuen harremana, eta gaizki sentitzen nintzen: ez nituen nire bizitzan nahi, baina ez nuen ulertzen zergatik, elkar maite genuen-eta. Nahaste-borraste itzela. Zergatia ulertzen ahalegindu nintzen, eta loturari bakarrik erreparatu banio, ez nukeen sekula ulertuko.

Zer ondorioztatu zenuen, zuen ekintzak jada ez zetozeela bat?

Ba, niretzat, honelako zerbait izan zen: aspaldi da jada ez garela lehengo pertsona berak, aspaldi da aski bereizi garela, eta

bai, asko maite dugu elkar, oso laguntasun ederra izan da, une miragarriak izan dira, baina hemen egonezin bat dago. Kasu batean, ni oso ondo tratatzen ninduen arren, beste pertsona batzuk ez, eta nire ustez ezin zen horrela portatu jendearekin. Konplexua da. Eta tira, nik laguntasunaren kasua hartu dut, baina uste dut lotura orotarako balio duela: zer da garrantzitsuagoa, lotura ala ekintza? Niretzat, ekintza.

Azken galdera: liburuan abesti mordo bat agertzen dira, zer leku du musikak zure pentsaeran?

Ea, begien bistakoa da punkia naizela, ez naiz askorik ezkututzen [barreak]. Niretzat punka ez da estetika huts bat, guztia ulertzeko modu bat baizik. Nik, bizitzari, punktetik begiratzen diot. Eta bizitzarako etika punk horretara musikari esker iritsi naiz, aktibismoari esker, punk kulturatzat hartzen dudana horri esker. Liburuan azaltzen ditudan kontuak, niri, kantez kontatu dizkidate. Liburua bera La Polla Recordsen aipu batekin hasten da: "Jende gehiegi bizi da tristeki / eta hilko dira demokratikoki". Ba bai, horixe bera, Evaristo. Orduan, azaldu nahi nuen ni ez naizela bolbora deskubritzen ari hemen. Ni hona iritsi naiz pogo baten eskutik. ●



Zergatik egin du okerrera gazteen osasun mentalak?

Erantzunak

zurrunbiloa.eus



elhuyar
ezagutuz aldatzea

DANOBATGROUP





Iritziak

Eurokeynesianismo militarra



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Europa berrarmatu. Europa defen-
datzeko berrindustrializatu. Hori
da azkenaldian Europar Batasu-
neko agintari politikoek sustatu
nahi duten agenda, Europako defentsari
buruzko Liburu Zuria, Europa BirAr-
matu eta 2030 Prestasuna planen bi-
dez. Militarismoa sustatzeko aitzakiak
dira Ukrainako gerra eta nazioarteko
harremanen aldaketa azkarra eta eze-
gonkorra. Europar industria jasaten ari
den erronkaren aurrean, berrarmatzea
irtenbide moduan planteatzen ari da.
Europar Batzordeko Ekonomia komi-
sarioak aldeko argudio ekonomikoak
plazaratu ditu: militarizazioak hazkun-
de ekonomikoa bultzatu, berrikuntza
sustatu eta enplegua sortuko du.

Tokiko gobernuak ere neurri horiek
txalotu dituzte. Eusko Jaurlaritzaren ka-
suan, Europako defentsarako proiektua
lagundu behar dela azpimarratu du, en-
presentzat eta euren azpikontratentzat
urrezko aukera baita. Laguntza hori ez
da berria, hainbat ikerketak agerian utzi
ditu administrazio publikoek emanda-
ko dirulaguntzak gerra arloko enpresei,
hizkera orwellianoan *defentsa industria*
moduan izendatzen dena.

Helburutzat gerra duen bidearen au-
rrean, mugimendu antimilitaristak az-
kar eta irmo salatu du europar berrar-
matzea, baita Euskal Herriko industria
militarra ere. Mundu akademikotik ere
Armagintza industria ez da bide(zko)a
manifestua zabaldu dute. Agerikoa da
ekonomia-gerra honen aurrean dagoen

Ez dago euskarri
teoriko edo enpiriko
sendorik gastu militarra
erremedio ekonomiko
gisa beharrezkoa
(edo, are, bereziki
eraginkorra)
dela pentsatzeko

aurkakotasuna. Hala ere, politikari eta
lobbystek bide horren alde on ekonomi-
koak azpimarratzen dituzte. Hala al da?

Keynesianismo militarra da propo-
samen honen atzean dagoena. Horren
arabera, gastu militarrek hazkunde eko-
nomikoaren pizgarri gisa jardun dezake.
Gobernuaren gastu militarrek (meha-
txu errealean edo alegiazkoen ondorioz)
eskari agregatua bultzatzen du. Horrek
ekonomia bultzatzen du, bai era zuzen-
nean (gobernuaren erosketen bidez),
bai zeharka (efektu biderkatzailearen
bidez). Batzuek argudiatzen dute erabili-
tako kapitala eta lana mantentzean atze-
raldiak edo depresioak saihesten dituela.
Hots, koordinaziorik ez duten sistema
kapitalistentzat gerra edo gerra-meha-
txua ekonomikoki onuragarria da.

Proposamen hau ekonomikoki ba-
liozkoa da? Zerga-pizgarriak eskaria
bultzatzen du depresioetan. Zalantzarik
gabe, gastu militarra ez da ekonomia
suspertzeko modu bakarra (beste gastu
batzuek, zerga-murrizketek edo Keyne-
sen *animal spirits*-ak berreskuratu arte
itxaroteak funtziona dezakete).

Espereintzia historikoak zer dio?
Alemanian, susperraldia Hitlerren
aurretik hasi zen eta pizgarri fiskala
ahula izan zen 1937ra arte. Kontsumoa
erreprimitu zen; ez zen efektu biderka-
tzaile handirik aurkitu. AEBetan, Biga-
rren Mundu Gerrak ez zuen herrialdea
berez Depresio Handitik atera, eta ge-
rra horren aurreko benetako motorra
inbertsio pribatua izan zen. Gerra Ho-
tzari erreparatzen badiogu, gastu mi-
litarra handitu egin zen aldi horretan,
baina murriztu egin zen denborarekin,
oparotasuna handitu arren. Ez dago
harreman sinplerik osasun ekonomi-
koaren eta gastu militarren artean.

Keynesianismo militarra teoria in-
teresgarria izan daiteke, baina ahula,
ekonomia modernoak eta datu histo-
rikoek erakutsi dutenez. Ez dago eus-
karri teoriko edo enpiriko sendorik
gastu militarra erremedio ekonomi-
ko gisa beharrezkoa (edo, are, bere-
ziki eraginkorra) dela pentsatzeko.
Politika ekonomikoak ez luke gerrak
bultzatutako estimuluen mende egon
behar. Baina hori da Europako eta
Euskal Herriko elite politiko eta eko-
nomikoen hautua. ●

Zaurgarritasunaren tranpa



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR

Zenbait urtetatik hona sarri entzuten dugun kontzeptua da *zaugarritasuna*. Gaur gaurkoz, diskurtso politikoetan pertsona zaugarrietz aritzea ohikoa da. Seguru nago nik ere inoiz erabili dudala berba hori Bizilan. eus webgunean, eskubide laboralak eta prestazio sozialak azaltzeko. Izan ere, buletin ofizial, lege eta arautegietan hitz arrunt bihurtu da, prestazio ekonomiko baterako eskubidea nork daukan eta nork ez ebazterako orduan.

Baina, zer da zaugarritasuna? Ondo pentsatzen badugu, denok gara zaugarriak. Fisikoki, psikologikoki edo emozionalki, denok izan gaitezke zaurituak. Zaugarritasuna ez da pertsona gutxi batzuen berezko ezaugarria; balizko zauria gure inguruko baldintza material eta pertsonalek sorrarazten digute.

Terminoari gaur egun ematen zaion erabilera, edozein kasutan, pertsonen egoera sozial eta ekonomikoarekin lotuta dago. Eta egia da hainbat talde arrisku handiagoan bizi direla. Baina afera ondo aztertzen badugu, aldagai bi aurkituko ditugu ezinbestean horien guztien atzean: bazterketa soziala eta diskriminazioa.

Zaurgarri terminoa eroso da, esan bezala, pentsamendua pertsona horien balizko ezaugarri baterantz eramaten duelako. Pertsona edo talde batzuen balizko nolakotasuna markatzen du, baina egoera sozial eta ekonomikoa ez da inoren nolakotasuna, baizik eta aipatutako bazterketa sozialaren eta diskriminazioaren ondorioa. *Zaurgarritasuna* dei-



MAIDER LETURIAGA

tzen den hori sistema sozial eta ekonomiko injustu honen emaitza baino ez da.

Ez dut ukatuko: aldatu ezinezko per-
 tsonen nolakotasun pertsonalek ere
 zeharkatzen dute egoera hau, hala nola
 arrazak edo jatorriak. Hori dela eta, baz-
 terketa sozialaz gain, diskriminazioa ere
 presente izan behar dugu. Hala ere, dis-
 kurto politiko-administratiboa zaurga-
 rritasunaz aritzen denean, diru-sarrerez
 eta ondasun materialez hitz egin ohi du,
 eta horretara murriztu ohi da. Laburbil-
 duz, *zaurgarri* esaten da, *pobre* ez esa-
 tearren.

Aurreko batean, Bartzelonako Casa Orsola etxebizitza sozialaren aferaz komunikabideetan azalpenak eta lezioak ematen dituen ekonomista ezagun batek *-mihigaiztoek* diotenez, hainbat onda-

re higiezin dituenak– honelaxe bota zuen: pertsona zaurgarriak baietz, horiek kontuan hartu eta zaindu behar direla, baina, horren segidan, etxea ez galtzeko borrokan zebilen maizter bati *“pijo-progre”* deitu zion. *“Pijo-progre”* zergatik? Funtz putre baten kontra borrokatzeagatik eta hogei urte luzez bere etxea izandakoa indarrez ken ez ziezaioten ahalegintzeagatik? *“Pijo-progre”*, txirotasun betean ez bizitzeagatik? Irakaslea bazara eta soldata duina kobratzen bazu, gizon horren kasuan bezala, ez omen duzu merezi espekulatzailen lukurreriaren eta abusuen kontrako babesik.

Zaugarritasunaren diskurtsoak, kolpe batez, justizia soziala ezaba dezake. Gehiegikeriez elikatzen den sistema sozial eta ekonomikoa ekua-
ziotik kendu eta batek-daki-zergatik-
baina-suerte-oso-oso-txarra izan du-
ten horiek baino ez ditu arbelean uzten. Geure buruari ez diogu galdetzen, halako aferetan, zer den justua eta zer ez, jendarteak zer onartu behar duen eta zer ez. Eta, horren orde, zaugarrien “zaintza” kokatzen dugu. Eta zaugarrien zaintza hori, justizia sozialaren ikuspegirik gabe, limosna eta karitate bihurtzen da. Azken batez, sistema osoa horrantz doa, Amancio Ortega eta Juan Roig bezalakoek dohaintzak barne.

Tamalez, ezkerak ere zaugarritasunaren markoa erosi du. Sistema injustu honek atzean uzten dituenak zaintzera bideratzen diren neurri eta partxeekin konformatzen gara; jendea atzean uzten duen sistema bera etsai onartezina dela gero eta lausotuagorik. ●



SUKAR HORIA

Turismotik bizi, ala nekez bizi?

Duela urtebete eskas Espainiako aireportuen sarea kudeatzen duen AENA enpresa publikoak iragarri zuen Loiuko aireportuko terminala handitu nahi duela. 2024an 7 milioi bidaiariren langatik gertu gelditu zen eta, handitzeak aurrera eginez gero, 2030. urtetik aurrera 13-14 milioi inguru hartzeko gai izango litzateke. Hau da, bost urteren buruan bikoiztu egingo litzateke gurera inportatu eta guretik esportatzen dugun turista kopurua.

Handitze horrek, dagoeneko turistikoki tentsionatuta egoten hasi den Hego Euskal Herriaren testuinguruan kokatuta, ondorio kaltegarri nabarmenak izango lituzke, ez bakarrik ingurugiroan, baita euskal gizarte-ehunean ere. Dagoeneko nabaritzen hasiak gara horren eraginak: geroz eta agerikoagoak dira turismoaren izenean eta instituzio publikoen babespean egiten den euskal kulturaren merkantilizazioa eta folklorizazioa, gune berdeen artifizializazioa, ondare historikoaren suntsiketa, eta, zer esanik ez, turistifikazioak eragiten duen etxebizitza larrialdia.

“Baina turismoa ona da ekonomia-ko eta enpleguak sortzen ditu”, errepikatzen digute. Egia da, turismoak aberastasuna neurtzeko erabili ohi ditugun adierazleak puzten ditu, baina mozkin horietako zenbat heltzen zaizkio benetan herri xeheari? Enpleguak sortzen

ditu, baina zer baldintzatan? Turismotik bizi gara ala turismoa da gure miserien kontura bizi dena?

Horren aurrean ezinbestekoa dugu antolatzea, aliantzak sortzea, begirada ekofeminista eta antirrazista txertatzen dituzten balizko alternatibak artikulatzeko. Errealitate bizigarriak eraikitzea beharrezkoa da, turismoak okupatutako espazioari beste erabilera bat emateko eta sortu dituen lanpostu prekario horien ordeztu lanpostu duinak aldarrikatzeko. Maiatzaren Lehenean, inoiz baino zentzudunagoa da turismoak sortzen duen prekaritatea salatzea eta hori zurtzen dutenak seinalatzea.

Eta zu (ni, gu), urtero maparen ifrentzua kolonizatzerazoaen hori, planteatu ezazu nondik datorren behar hori, zer dela eta sentitzen duzun zure bizitzatik ihes egiteko beharra. Ea bizitza hori bizigarriagoa egiten duen sistema batean ez ote ginatekeen etxean geldituko, lagun eta senide artean, komunitatean, zoriontsu.

Horregatik, Sukar Horiako kideok maiatz antiturstikoa antolatu dugu, *Turismoa, inbasio isila?* izenburupean, eta gonbidapena luzatu nahiko genioke nahi duen orori, hilabete osoan Bilbon beste herri mugimenduetako eragile batzuekin egingo ditugun ekintzetara. Turistifikazio suntsitzailearen aurrean, antolakuntza! ●

Errolda denontzat!



ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Maiatzaren 11n, igandea, Errekalde plazan (Bilbo) hitzordua dugu euskal hiri eta herrietan bizi diren pertsona guztiek errolda izan dezaten aldarrikatzeko korrikan. Ekintza hori gure udalerrietan bizi den inor erroldarik gabe ez egotea bultzatzen duen kanpaina zabal baten barruan kokatzen da. Izan ere, agiri horrek oinarriko eskubide batzuen onuradun gisa aitortua izateko atea irekitzen du, eta, horrekin batera, osasuna, hezkuntza edo gizarte-zerbitzuak jasotzeko bidea zabaldu ere bai.

Hainbat dira erroldarik gabe egoteko arrazoiak; etxebizitzarik ez dutenei

gehitzen zaie bizitokian erroldatu ezin direnak, alokaturiko etxearen jabeak baimentzen ez dielako edo, langile egoiliarren kasuan, bertan bizi direnek etxekotzat hartzen ez dutelako. Badaude, izan, behar honetatik etekinak ateratzen dituztenak ere, erroldatze hutsagatik kobratzen dutenak.

Egoera bidegabe horiei aurre egiteko irtenbidea errolda soziala litzateke. Gero eta udal gehiagok ahalbidetzen badute ere, behar beharrezkoa da guztietara hedatzea; jatorriak ez bezalaxe, bizilekuak ere ez bailituzke herrikideen eskubideak baldintzatu behar. ●

Europar bizimodua



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Posible da, nonbait, zoriontasuna neurtzea. Are, bada horretan tematzen denik. NBEk ez du arrakasta handirik munduko bakeari eusten, baina halako tasuna planetan zehar nola dagoen banatua erakusten du urtero, txosten batean. Funtsean zerrrenda bat da, herrialdez herrialde, zein buru eta zein buztan, dohatsuenetik dohakabeenera mailakatua. Berrikitan aurkeztu da azkena, 2024. urteari dagokiona. Ondorioetan denetarik dago, eta txundigarri guti. Ni, bederen, ez naiz harritu hogeitaz herrialde zoriontsuenetik hamalau europarrak direla jakinda.

Aspaldi dabilkigu kontinente zaharra bizitzeko munduko bazterrik hoberena delakoa. Ezin uka: gainerako herrialdeen aldean, lekutan gaude ongizate mailan, babes sozialean, berdintasunaren aldeko urratsetan edo eskubide eta askatasunen aitortza formal orokorrean.

Xehetasunetan sartuz gero, ordea, ez gabiltza hain eder. Hemen ere, galga ezarri zaie hobekuntza sozialei, desberdinkeria ekonomikoa goraka doa aspalditik, eta estatu eta korporazioak gailentzen zaizkie ia beti askatasun publikoei,

Ametsak amets, ez
zait hainbertzeko
astakeria iruditzen
armada europar
sendo bat, Estatu
Batuen mendekotasun
militarretik libratzeko
tresna baldin bada

osasunari eta justiziari. Etorkinekin kriminalki zeken eta haien sorterriekin harrapari gupidagabe; ekonomiaren eta geoestrategiaren izenean ulerbera eta moldakor, bertze nonbaiteko despota eta hiltzaileen aitzinean. Putin putakumea baita, baina putakume guztiak ez baitira Putin.

Hori guztia ere bada europar bizimoduaren osagai. Horrek guztiak ere badu ikustekoa gure ongizate eredugarriarekin. Gure zoriontasunarekin. Estatu Batuetako misilek, petrolio errusiarrak

eta Asiako manufaktura eta deslokalizazioek egin dute gainerakoa.

Orain, eraikina zutik atxikitzen laguntzen zuten zutabeak arrailtzen hasi zaizkigularik, alarma hotsak nonahi. Aizu, proiektu europarra defendatu behar dugula, baita armak eskuan hartuta ere.

Nik ez dut astekari honetako bertze luma batzuek bezain garbi ea Kremlin-go jabeak aski izanen ote duen Ukraina mendean hartuta. Bertzalde, ametsak amets, ez zait hainbertzeko astakeria iruditzen armada europar sendo bat, Estatu Batuen mendekotasun militarretik libratzeko tresna baldin bada. Hala izanagatik ere, hartz errusiarraren arriskuaren mamua inarroteaz gain, zerbait gehiago eskaini beharko dute gure estatuburuek konbentzitu nahi bagaituzte merezi duela gure bizimoduaren gailentasunaren defentsan halako dirua eta halako kemena inbertitzea.

Baina nork jakin. Datu bat ahantzi zait arestian: hasieran aipatu NBERen txostenaren arabera, Israel da, Luxemburgoren, Kanadaren edo Suitzaren aitzinetik, zortzigarrena munduko herrialde zoriontsuenetan. ●



ATE IREKIEN JARDUNALDIA



ERDI MAILA maiatzak 6

- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Errepide garraiorako ibilgailuak gidatzea
- Administrazio kudeaketa
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Farmazia eta Parafarmazia
- Mendekotasun egoeran dauden pertsontzako arreta

GOI MAILA maiatzak 7

- Administrazioa eta finantzak
- Garraioa eta Logistika
- Dietetika
- Gizarteratzea
- Web aplikazioen garapena
- Plataforma anitzeko aplikazioak garatzea
- Sareko informatika-sistemen administrazioa
- Haur Hezkuntza
- Nazioarteko Merkataritza
- Laborategi Klinikoa eta Biomedikoa

Aurrematrikulazio epea maiatzaren 5etik 23ra

+34 943 899 214

www.plaiaundi.eus

info@plaiaundi.eus

HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik
gorako erosketetan.

HARRI-JASOTZEA

Harri eskolek emandako bultzada

Harri-jasotzearen gorakada nabaritu da azken urteetan, batez ere emakumeen artean. Gazteek harri eskoletan ikasten dute kirolean esperientzia dutenengan-dik. *Crossfit*-a, sare sozialak eta telebista faktore garrantzitsuak izan dira kirola-ren piztutaldian, harri eskolekin bate-

ra. ARGIAk Ainhoa Etxabe Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko presidentear-ekin, Joxerramon Iruretagoiena *Izeta II.a* eta Joseba Ostolaza entrenatzaileekin, eta Lierni Osa harri-jasotzailearekin hitz egin du harri-jasotzeak bizi duen mo-mentua ezagutzeko.



JULEN UGARTEMENDIA CARCEDO



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

K irol nagusienek eta ezagune-
nek kirolari kopuru handiena
hartzen duten bitartean, herri
kirolek bere lekua izaten jarrait-
zen dute. Horien artean harri-
jasotzea aldaketa nabaria bizitzen ari
da. Harria jasotzeak historiaurrean ditu
aztarnak, eta duela mende bat baino
lehenagotik kirol diziplina da, zeinak
Euskal Herrian bere tokia duen. Azken
urteetan piztutaldia izan du eta orain
arte esparru horretan ikusi ez diren
profilak gerturatzeko hasi dira, batez ere
emakumeak. Gipuzkoan, Aiako Santio
Erreka auzoan, Joseba Ostolaza Harri
Eskolan egon da ARGIA, baita Zarauzko
kiroldegian dagoen *Izeta* Harri Eskolan
ere. Harri-jasotzearen gorakadaren fak-
toreak zeintzuk izan diren xehatu dute.

Kirolak gora egin duela “garbi” na-
baritu du Gipuzkoako Herri Kirol Fe-
derazioko presidentea den eta Joseba
Ostolaza Harri Eskolan lanean ari den
Ainhoa Etxabek (Orio, 1973), orain dela
urte gutxi “txapelketak desagertzeko


“Atea ireki zaien momentutik,
emakumeak harria jasotzen
hasi dira. Egun, errazagoa
da emakumeen txapelketak
antolatzea gizonenak baino”

Ainhoa Etxabe
Gipuzkoako Herri Kirol
Federazioko presidentea

zorian egon ziren”, dio. Etxabek, Ostola-
zaren emazteak, harri eskoletan kokatu
du piztutaldiaren giltzetako bat. Bateko
eta besteko harri-jasotzaileek beti egin
dituzte entrenatzaile lanak, baina esko-

len bidez berriei irakasteari garrantzi
handia ematen dio, bestela “oso zaila
da herri kirolean aritzea”. Harriak, aiz-
korak, egurra... alegia, norbere kabuz
aritzeko ez direla herri kirolak, batzuk
behintzat. Harri-jasotzeari dagokionez,
Joxerramon Iruretagoiena *Izeta II.ak*
(Aia, 1967) eta Joseba Ostolazak (Zes-
toa, 1973), harria jasotzeari utzi ondo-
ren, argi izan zuten etorkizuneko harri-
jasotzaileak trebatu nahi zituztela, eta
harri eskolak zabaldu zituzten 2013an
eta 2015ean, hurrenez hurren. Bi horiez
gain, Bizkaian, Araban eta Nafarroan
ere aurki daitezke beste zenbait zentro,
esaterako Ogikiñe Harri Eskola Getxon,
Arabako Harri Eskola Gasteizen, Saka-
nako Harri Jasotze Eskola Irurtzunen,
eta Bilboko Txurdinaga auzoan irekiko
duten herri kirol zentroa. Etxabek hone-
la azaldu du zer eskaintzen duen eskola
batek: “Harri-jasotzaile erreferenteak
daude, materiala uzten diete ikasten
hasi nahi dutenei, eta harri-jasotzearen
teknika ere bai”.





Aurreko orrialdean, Zarauzko kiroldegian, Izeta II.aren harri eskolan. Goian, Udane Ostolazaren txalekoak eta gerrikoa; harri-jasotzean ere estetikak garrantzia dauka. Entrenatzaileek ez dute oso gustuko telefono mugikorra, bai baitakite entrenamendu puskek sare sozialetara igoko dituztela, eta aurkariari pistak eman. Alabaina, era berean, kirola hedatzeko gune interesgarriak dira sare sozialak.

SARE SOZIALAK ETA 'CROSSFIT', FAKTORE GARRANTZITSUAK

Elkarrizketatutako guztiek bat egin dute sare sozialek eta *crossfitak* –hainbat kirol diziplina batzen dituen entrenamendu-metodoa– garrantzi handia izan dutela jendea harria jasotzera erakartzeko, eta batez ere emakumeak hurbiltzeko. Joseba Ostolaza eta Izeta II.aren eskolatan aipatu digute 2020. urtetik aurrera harria jasotzera emakume gehiago animatu direla. Etxabek adierazi du 2020an Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioko presidentetza hartu eta aurreneko astean egin zuen lehen lana sare sozialetako profilak sortzea izan zela: "Garbi neukan jende gaztea gerturatzeko beraiek ibiltzen ziren tokian egon behar zela, eta sare sozialetan bazebiltzan".

Etxabek berak, urte berean, Joseba Ostolaza Harri Eskolako sare sozialetatik, bideo labor baten bitartez, deialdia egin zuen emakumeak harria jasotzen probatzera hurbildu zitezen. Lau emakume hasi ziren entrenatzen, eta Izeta II.ak gonbidatutako beste emakume batzuekin batera, zortzi emakumeko txapelketak egiten hasi ziren.

Izeta II.aren harri eskolan *crossfit*-eko jendearen etorrera antzeman dute. 2021ean, Zarauzko Bi Harri Txapelketan lehenengo aldiz emakumeek parte hartu zezaten lan egin zuen aiarrak. Txapelketa

"Etorkizun hurbilean
entrenatzaile emakumeak
ere izango dira"

Joseba Ostolaza
entrenatzailea

horretan parte hartu zuten emakumeen artean egon zen Lierni Osa (Zarautz, 1995). *Crossfit* egiten du eta Andoni Iruetagoiena adiskideak, Izeta II.aren ilobak, egin zion bultza harri-jasotzera. Gaur egun Izeta Harri Eskolan jarraitzen du Osak, eta *crossfit*-ak harri-jasotzerako duen garrantzia azpimarratu du: "Harri eskolan gauden emakume gehienak *crossfit*-etik etorri gara, eta *crossfit*-etik etorri ez direnek orain egiten dute". Izetak nabarmendu du eskubaloitik harria jasotzera pasa direla beste zenbait emakume.

Ez da kasualitatea *crossfitzaleak* harri eskoletara gerturatzea. Etxabe eta bere taldea federazioan sartu zirenean (senar duen Ostolaza presidenteordea da), zenbait *crossfit* zentro bisitatu zituzten, erabiltzaileek harri-jasotzea probatzeko, eta ahoz ahokoaren bidez jende gehiago animatu dela diote.

Ostolazak azaldu du iraganean harri-jasotzaileak gehienbat baserritarak zirela, eta indartsuak. Orain, *crossfit*-ean gorputza landutakoak datoz eta behar dutena da harria jasotzen ikastea, teknika. Zestoarrak dioenez, hainbat kasutan harri-jasotzaile batzuek baino altuera eta pisu txikiagoa duten zenbait pertsonak pisu handiagoa altxatzen dute, eta emaitza horiek lortzeko teknikak duen garrantzia azpimarratu du. Etxabek haien alaba Udane Ostolaza jarri du adibide eta eredutzat: "Udanek zenbait estereotipo apurtu ditu. Ez da baserritarra, eta nolabait esan, femininotzat hartzen diren jokaerak ditu; adibidez, txalekoak berak diseinatzea gustatzen zaio. Bestalde, txikia da. Udane moduan, profil oso ezberdinetako jendea hasi den heinean, uste dut jendea errazago ausartu dela gerturatzera". Udane 7 urte zituenean hasi zen harria jasotzen, eta bere pisuaren bikoitza jaso duen lehen emakumea izan da, 59,6 kilo zela 122 kiloko harria altxatu zuen.

Bi harri eskoletan astean bitan egiten dituzte entrenamenduak, gehiago ez delako gomendagarria, baina harri eskoletatik kanpo ariketa gehigarria egitearen garrantzia azpimarratu dute elkarrizketatuek. Lierni Osak adierazi du harri pisutsu bat jasotzeaz haratago doan kirola dela, eta harria jasotzeko indarra



izateaz gain, erresistentzia asko lantzen dela, ahalik eta errepikapen gehien egiteko. Izeta II.ak nabarmendu du bakar-kako kirola izanda, harri-jasotzaileak zorrotza izan behar duela, eta asteko zazpi egunetan entrenatu behar duela, egun bat atseden hartzeko aukerarekin, baina astean bitan entrenatzea ez dela nahikoa sasoian egoteko. Horretarako *crossfit*-ak asko laguntzen duela adierazi du, eta Ostolazak ere azpimarratu du batzuetan berak gomendatzen diela eskolako kirolariei *crossfit* egitea. Beraz, bi norabidetan ari dira, *crossfit*-ekoak harria jasotzera gerturatu dira eta harri-jasotzaileek *crossfit*-a darabilte haien entrenamenduak osatzeko.

Sare sozialez eta *crossfit*-az gain, Izeta II.ak azaldu du telebista faktore garrantzitsua izan dela harri-jasotzea bultzatzeko. Esan du COVID-19aren garaian herri kirolak asko eman zirela telebistan, eta orain ere hala jarraitzen dutela. Etxabek ere azpimarratu du azken aldian telebista "asko" laguntzen ari dela, eta EITB herri kirolen aldeko "apustu garrantzitsua" egiten ari dela.

Horren lekuko da bukatu berri den *Harri Herri* harri-jasotzeko txapelketa. Bereziki telebistaz emateko prestatutako saioa izan da, bost saiotan grabatua. *Harri Herri* programaren hirugarren edizioa izan da. ETB1-en hamasei gizonetako eta hamasei emakumetako aritu dira harri-jasotzen.

"Telebista faktore garrantzitsua izan da. COVID-19aren garaian herri kirolak asko eman ziren telebistan, eta orain ere hala jarraitzen dute"

Izeta II.a entrenatzailea

HARRIEN PISUA MURRIZTU EMAKUMEAK ERAKARTZEKO

Emakumeak harria jasotzera eta txapelketetan parte hartzera animatzeko, federazioan erabaki zuten txapelketetarako lehendik ezarrita zeuden harrien pisuak murriztea. Emakumeekin bildu ziren erabaki hori hartzeko, eta Etxaberen ustez, horrek txapelketetan emakume gehiagok parte hartzea ekarri zuen: "Pentsatu genuen pisuak murriztuta emakumeak erakarri genitzakeela, gero horiek hobekuntza izango zutela, eta harri astunagoak jasotzeko garaia etorriko zela". Izeta II.ak ere antzeko iritzia eman du. Bere ustez, harriak arinduta ema-

kume gehiago animatu dira, arinagoak jasoz kirolean gehiago iraungo dute, eta ikusteko politagoa da. Aiarra, beraz, oraingoz harrien pisua mantentzearen aldekoa da, emakumeek gaur egun dituzten txapelketa eta erakustaldiak asko direla dio-eta.

Emakumeak ohikotasunez harria jasotzen 2020tik hona ari direla esan dute bi harri eskoletan. Jasotzen bai, baina emakume entrenatzaileak, oraindik ofizialki ez dago. Hala ere, aurtengo *Harri Herri* telebista saioan lehen aldiz emakumeen taldeetako kapitainak emakumeak izan dira. Oriotarrak azpimarratu du Joseba Ostolaza Harri Eskolan nahiz eta Idoia Etxeberriarekin nolabaiteko esperientzia izan, gizonaren ikuspuntutik emakumea harria jasotzen entrenatzea ez dela erraza: "Entrenatzaile gizonetakoekin mutilekin dute esperientzia gehien eta emakumearen gorputza ez da berdina. Emakumeek hilekoa izaten dute, egunean eguneko gorabeherak ez dira berdinak, eta emakume bat ondo entrenatzeko noiz dagoen ondo jakin behar da". Izeta II.ak ere aipatu du emakumeen muskulatura eta metabolismoa ez direla gizonen berdinak. Ostolazak dio entrenatzaileak esperientzia-urteak behar dituela, eta etorkizun hurbilean entrenatzaile emakumeak ere izango direla.

Entrenatzaileen alorrean dagoen hutsunea ahaztu gabe, Etxabek azken bost urteetan emakumeek harri-jasotzen

egindako ibilbidea azpimarratu du. *Harri Herri* telebista saioan bertan, lehen ediziotik aurtengora “izugarrizko bilakae-ra” izan dela nabarmendu du, eta emaitzak espero baino “dezente azkarrago” ikusten ari direla. “Teknika ikasten eta entrenatzen ari diren heinean, markak hobetzen ari dira”, adierazi du. Horrez gain, esan du atea ireki zaien momentutik, emakumeak harria jasotzen hasi direla. Are gehiago, bi harri eskoletako kideek aipatu dute gaur egun errazagoa dela emakumeen txapelketak antolatzea gizonenak baino.

ELKARREKIN ENTRENATU, ETA ELKARREN AURKA LEHIATU

Gaur egun Joseba Ostolaza Harri Eskolara ohikotasunez hamabost pertsona inguru joaten dira, eta Izeta Harri Eskolan hogeit hamar pertsona inguruk entrenatzen dute. Eskola zaharreko harri-jasotzaileekin alderatuta, entrenatzeko modua asko aldatu da; izan ere, txapelketetan elkarren aurka lehiatzen duten hainbat harri-jasotzailek batera entrenatzen dute, eta beraz, txapelketara joaterako elkarren marken jakitun izaten dira. Ostolazak eta Izeta II.ak harria jasotzen zuten garaiko sekretismotik aldentzen dira, nahiz eta man-



tentzen den harri eskolen artean. Lierni Osak dio harri eskola bereko harri-jasotzaileek elkarren aurka lehiatzea ondo eramaten dutela, eta talde sentimendua dagoela: “Denok irabazi nahi dugu, kirol guztietan bezala, baina taldekide batek irabazten duenean poztu egiten gara”.

Etxabek nabarmendu du nahiz eta plazan elkarren aurka lehiatu, azken finean, lagunak direla. Hala ere, komentatu du elkarren artean zirikatzeko direla eta hori ere motibazio puntu bat dela. Sekretismoa ez bada iraganean bezainbestekoa ere, Ostolaza eta Izeta II.a ez dira entrenamenduak grabatzearen eta sare sozialetan zabaltzearen oso aldekoak, beste eskoletako aurkariei pistak eman diezazkietelako. “Berriak ez dira konturatzen, baina bizpahiru jasoaldi ikusita kalkula daiteke pertsona batek zer erritmo duen edo zenbat jasoaldi egin ditzakeen. Horrek informazio asko ematen du”, adierazi du Ostolazak. Txantxa giroan beti ere, senar-emazteen begiradak gurutzatu egin dira gai hau atera denean. Etxabek esan baitu federazioan sartu eta lehenengo asmoetako bat sare sozialak astintzea izan zela, eta Ostolazari, entrenatzaile izaki, ez dio grazia handirik egiten kirolariak telefono mugikorrez entrenamenduak grabatzen ikusten dituenen, bai baitaki non bukatuko duten grabazio horiek.

GORAKADA IZAN BADA ERE, HUTSUNEAK ETA MUGAK BADIRA

Ostolazak eta Izeta II.ak haien harri eskoletan borondatez egiten dute lan, ez dira entrenatzaile profesionalak, eta es-

kariak gora egiten badu ere, ezin dute gehiago eskaini. Halakoa da egoera; herri kirolak, beste kirol askorekin alderatuta, kirol minoritarioak eta bertakoak baino ez direnez, jende guztiarengana iristeko eragozpenak handiak dira.

Etxabek aizkoraren adibide bat aipatu du: garai batean aizkora egin nahi zutenak Leitzara bidaltzen zituzten, Gabriel Saralegi zelako entrenatzaile, baina berak ere borondatez lan egiten duenez, eta jende kopuru mugatua onar dezakeenez, eskatu zuen jende gehiago ez bidaltzeko. Etxabek adierazi du momentu honetan aizkoran egiteko asmoa duenak aukera oso mugatuak dituela. Baliabide mugatuaren ondorioz, Ostolaza eskolan ere gertatu zaie ezetz esan behar izana behin baino gehiagotan.

Etxabek mugak aipatzerakoan, federazioaren ikuspegitik hitz egin du. Berak eta bere taldeak joan den urrian utzi behar zion Gipuzkoako Herri Kirol Federazioaren gidaritzari, baina lege aldaketak bat tarteko hauteskundeak atzeratu zituzten joan berri den apiril bukaerara. Badakite ordezko taldea aurkitzea zaila izaten dela. Borondatezko lana da eta “lana ondo egin nahi bada, ahalegin eta sakrifizio handia eskatzen du”.

Hainbat pertsona entrenatzaile titulua eskuratzeko izaten ari diren oztopoek ere, jende guztiarengana iristeko zailtasunean zerikusia du. Hainbat entrenatzailek ez dute ezarritako gutxieneko ikasketa mailarik, titulua atera ahal izateko. Etxabek adierazi du borrokan ari direla horientzat salbuespen bat egi-



Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Ezlaio industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus



Goian, Joseba Ostolaza Harri Eskola. Aiako Santio Erreka auzoan dago eta 2015ean jarri zuen abian Ostolaza harri-jasotzaile ohiak.

teko, horiek direlako "momentu honetan gehien dakitenak" harri-jasotzearen inguruan. "Agian titulu homologatua ezin zaie eman, baina beharbada federazioko entrenatzaile titulua bai, federazioak egindako salbuespen moduan. Beste kirolatan bezala funtzionatu nahi dute, baina herri kirolak ez gara beste kirolak bezalakoak, ezberdinak gara onerako eta txarrerako", adierazi du.

BEASAINGO AHALEGINA

Duela hamar urte Beasainen (Gipuzkoa) sortutako herri kirol teknifikazio zentroaz hitz egin digute Etxabek eta Ostolazak, eta aipatu dute Eusko Jaurlaritzak hura irekitzeko diru asko gastatu zuela eta ez zuela arrakastarik izan. Eusko Jaurlaritza, duela 25 urte inguru, herri kirolen egoeraz ikerketa bat egiten ari zen eta zenbait pertsonarekin jarri zen harremanetan. Ostolazak adierazi du Eusko Jaurlaritzak zabalduko inkestan beraiek erantzun zutela herri kirolek ikastetxeetan egon behar zutela eskola kirolean "jolas bezala" aritzeko, eta eskola kirola bukatu ondoren, beste ki-

"Harri eskolan gauden emakume gehienak 'crossfit'-etik etorri gara, eta 'crossfit'-etik etorri ez direnek orain egiten dute"

Lierni Osa
harri-jasotzailea

roletan bezala, eskolak egon behar zirela. Ostolazak aipatu du duela 25 urte inguru proposatutako bi gauza horiek gaur egun egiten ari direla. Etxabek azpimarratu du Beasaingo zentroan baliabide ekonomikoak eta materiala egon arren, hura aurrera eramateko jende espezializatua falta zela. Gaur egun, beren kabuz sortutako eskoletan dauden entrenatzaileei, Etxabek dioen moduan

"momentu honetan gehien dakitenak", titulua edukitzeko bidea erraztuko baltzaie, jende espezializatua edukitzea samurragoa izango litzateke.

Etorkizuneko erronkei dagokionez, Etxabek nabarmendu du gustatuko litzaiokeela harri-jasotzea edonorentzat eskuragarri egotea. Kirolariak entrenatzeko egin beharreko kilometro kopurua izan du hizpide. Gogoratu dezagun Gipuzkoako bi harri eskola garrantzitsuenak, bata Zarautzen eta bestea Aian, sei kilometroko tartean daudela. Aiakorra, batez ere, Oriotik eta Zarautzik joaten diren arren, Oñatitik, Oiartzundik eta Azkoititik ere heltzen dira zenbait kirolari. Estefania Etxebeste, adibidez, Iturendik (Nafarroa) joaten da. Federazioko presidenteak uste du kirolariak trebatzen doazen heinean, entrenatzaileak ere ugalduko direla eta jende gehiago hartzeko aukera egongo dela.

Izeta Harri Eskola Zarautzen dago, eta nahiz eta gehienak zarautzarrak izan, Alegiatik (Gipuzkoa) eta Mallabitik (Bizkaia) doazen harri-jasotzaileak ere badira. ●

“ ”

Atzerritarren Legearen erreformak asiloari uko egitera behartuko ditu pertsona zaurgarrienak, erregularizatu ahal izateko

Loueila Sid Ahmed Ndiaye

Maiatzaren 20an indarrean sartuko da Espainiako Atzerritarren Legearen erreforma berria. Loueila Sid Ahmed Ndiaye sahararrak (Tinduf, Aljeria, 1990) egunero ikusten du lege horrek pertsona migratzaileen bizitzetan duen eragina. 1999an iritsi zen Kanaria uharteetara Saharatik, eta

zuzenbide ikasketak egin ondoren, azken urteak migratzaileak erregularizatzeko lanetan igaro ditu. Legediak atzerritarrak erregularizatzeko mekanismoak dituela dio, baina, praktikan, instituzioek ez dituztela lege horiek betetzen, eta migratzaileei “etengabeko trabak” jartzen dizkietela.

 JONE ARRUABARRENA





Maiatzaren 20an sartuko da indarrean Atzerritarren Legearen azken erreforma. Zer dago haren atzean?

Izango duen eragina aztertzen ari gara oraindik, baina dirudenez, erreformaren atzean dagoen borondate politikoa argia da: Regularización Ya (Erregularizazioa orain) mugimenduaren Herri Ekimen Legegilea bertan behera uztea. Izan ere, ekimen herritarrak egoera irregularrean dauden pertsona asko erregularizatzea ekarriko luke.

Besteak beste, erregularizazioa lortzeko epeak laburragoak izatea ekarriko du erreformak, ezta?

Erreformaren asmoa, ustez, erregularizazioa lortzeko epeak murriztea da, izapideak arindu eta sinpleago egitea. Egia da epea hiru urtetik bi urtera jaitsiko dela. Hala ere, orain arte bezala baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten pertsonen soilik emango dizkiete erresidentzia baimenak, eta atzerritarrentzako bulegoetan zitak eskatu behar dira horiek izapidetzeko; lan bolumen gehien eta langile gutxien dituzten bulegoetan. Ez du ezertarako balio legegileak pertsonak erregularizatzeko asmoa izateak gero ez badago langile nahikorik espe-

“ ”

Ez dago alternatiba beharrik; gaur egungo legea betetzearekin nahikoa litzateke

diente horiek jarritako epeen barruan ebazteko.

Zer dakar bulegoetako gainkarga horrek?

Adibide bat jartzearen, espediente bat ebazteko zazpi hilabete behar dira gaur egun, nahiz eta legeak argi eta garbi esaten duen administrazioak hiru hilabete epea duela gehienez ere. Ondorioz, espedientearen zain dagoen pertsona batek, lan egin nahi badu, legeak eskatzen dituen bi urteez gain praktikan beste zazpi hilabetez itxaron beharko du.

Polemika sortu du erreformak asilo eskatzaileetan izango duen eraginak.

Bai. Asiloa jasotzeko baldintzak betetzen dituzten migratzaile askori ziurgabetasun handia eragiten die erreformak. Euren orientazio sexual, ideologia politiko, erlijio zein nazionalitateagatik jazarpena jasan dutenak dira asilo eskatzaileak, eta ez dakigu beraiekin zer gertatuko den. Erreformak hutsune bat utziko du hor, eta erregularizazioa errotzearen bidez eskatzeko, asiloari uko egin beharko diote. Hau da: pertsona zaurgarrienak behartuko ditu asiloari uko egitera, erregularizatu ahal izateko.

Errotze soziorabalararekin gaur egun dagoen arazoari ere konponbiderik ez dio jartzen legearen erreformak.

Ez. Ezin du izan pertsona bat hona iristea turista bisa batekin, bisak ematen duen hiru hilabete epean lan kontratu bat izatea, eta, hala ere, bi urte itxaron behar izatea erregularizatu ahal izateko. Linbo juridiko batean egon beharko du bi urtez, zigor prozedurarik ez jasotzeko kontuz ibilita, horrek dakarren guztiarekin: gastu ekonomikoa berarentzat eta administrazioarentzat, higadura fisiko eta psikologikoa... Erreformak ez dio horri konponbide-

rik ematen, erakunde batzuek errekur-tsoak jarri dizkiote horregatik. Izan ere, erreforma indarrean jartzen denean errekurtsio eta instrukzioei atea zabalduko zaie, eta ez dakigu nolako kaosa ekarriko duen horrek, eta nola eragingo dien pertsona migratzaileei.

Eguneroko praktikan, betetzen al dira legeak zehazten dituen migratzaileen eskubide eta askatasunak?

Lege aldetik badaude mekanismoak pertsonen modu seguruan migratzeko edo beraien egoera erregularizatzeko. Zein da arazoa? Traba eta oztopo ugari jartzen direla pertsona horiek legea baliatu dezaten. Egunero ikusten dugu instituzioek Atzeritarren Legea sistematikoki urratzen dutela.

Non ikusten dira urraketa horiek?

Jo dezagun, adibidez, Mohamed izeneko migratzaile batek Espainiara migratu nahi duela. Emaztea Espainian du, eta berrekartze baterako baldintza guztiak betetzen ditu: egiaztatu du baliabide ekonomikoak dituela, aurrekari penalik ez duela, etxebizitza egokia duela... Atzeritarren bulegoak eta gobernua-

“ ”

Segurtasuna bermatzeko modu bakarra herritar guztiei eskubide gehiago ematea da

ren ordezkariordetzak bizileku baimena eman diote, baina jatorrizko herrialdeko kontsultuaren aldeko ebazpena iristen denean, galga jartzen zaio eskaerari, eta pertsona horri eragotzi egiten zaio legeak baimentzen dion zerbait eskuratzeko. Erregularizazioak ahalbideratuko luke atzeritarren Espainiako gizartearen integratzea, eta instituzioek aipatzen dituzten bide seguru, legal eta ordenatuen bidez hona iristea. Baina galga hori sistematikoki jartzen da erregularizazioa eragozteko.

Erregularizatu gabeko pertsonen errola ukatzen zaiela ere salatu izan dute hainbat erakundek.

Pertsona migratzaile askori galarazten zaizkie errolatzeko dituzten eskubidea eta betebeharra. Ez dezagun ahaztu betebeharrak bat dela, bai pertsona horrentzat, baina, batez ere, udalarentzat, bertan bizi diren herritarren errolatzeko. Errolatzeko sarbidea ematen du beste eskubide batzuetara: erregularizaziora, osasun txartela izatera, zein zerbitzu sozialerara. Baina eragotzi egiten diete errolatzeko: batzuetan, etxeko errentatzaileek, eta, beste askotan, zerbitzu sozialek. Administrazioak langileek frogak eskatzen dizkiete askotan, herri horretan bizi direla ziurtatzeko. Baina pertsona horrek bertan bizi dela frogatzeko daukan mekanismo bakarra zerbitzu sozialek eskatzen badizkiote, nola frogatuko du? Ez dauka zentzurik, eta migratzaileak blokeatzen ditu. Hedatzen ari diren diskurtsoen arabera, badirudi migratzea erraza eta sinplea dela. Baina errealitatea beste bat da: ez dago erraza den ezer, eta prozesu osoan zehar zaurgarrienak diren pertsonen eskubideak behin eta berriz urratzen dira.



2022ko abenduaren 21ean 600.000 sinadura aurkeztu zituzten Espainiako Kongresuan 800 eragile baino gehiagok, 500.000 migratzaile erregularitzea eskatzeko Herri Ekimen Legegile baten bidez.

Pertsona etorkinen eskubideak arautzen dituen lege organikoak integrazioarako dituzten eskubideak ere aipatzen ditu.

Legeak ez du ezertarako balio, eskubide horiek behin eta berriz zapalduak eta mespretxatuak badira, eta ez badira betetzen. Ezin dugu pertsonen integrazioarako legea bete, etorkinei sistemarako sarbidea debekatzen badiegu: errol-datzen uzten ez badiegu, erregulariza daitezen galarazten badiegu, modu legalean lan egiten uzten ez badiegu, eta, funtsean, beraien buruaren jabe izateko aukera kentzen badiegu. Eta, hori guztia lortzeko urteak igaro behar badira, zertara bultzatzen ditugu pertsona horiek? Erabateko bazterkeriara. Guztiz deshumanizatzen ditugu, eta gero, gainera, zaurgarri modura etiketatzen ditugu, sistemara sartzen uzten ez diegualako.

Migrazioaren aurkako diskurtsoek askotan darabilte segurtasun ezaren kontzeptua.

Segurtasunagatik kezkatuta dauden horiek jakin behar dute segurtasuna bermatzeko modu bakarra herritar guztiei eskubide gehiago ematea dela. Hau da: beraien auzoko, herriko edo hiriko inor bazterkeria sozialean ez dagoela bermatzea da herri seguruagoak erakitze bidea. Hori da benetako arazoa: gure komunitateko pertsonak erabateko bazterkeria sozialera kondenatuta egotea.

Mugetan ere gertatzen dira lege urraketak?

Bai. Eta ez bakarrik Espainiako lurraldean. Mugak kanpora atera ditugu, eta giza eskubideak errespetatzen ez dituzten herrialdeen esku utzi ditugu. Guk hemen giza eskubideen inguruko akordioak, legeak eta direktibak dauzkagu, baina beste herrialde batzuei ordaintzen diegu lan zikina egin dezaten. Mugetan hiltzen den jendearen odolarekin zikinduta dauzkagu eskuak. Pertsonen eskubideak errespetatzen ditugula esateak ez du ezertarako balio, era berean mugak kanpora atera, Espainiako mugak militarizatu eta jendea pasatu ez dadin hesiak jartzen baditugu.

Alarma mezuak piztu dira, "jende gehiegi" iristen ari delako.

Kanaria uharteetatik, 30 urtetan, 255.000 pertsona sartu dira Espainiara. Baina kontuan hartzen badugu bi urtean 190.000 ukrainarri harrera egin



TERESA TODA

“ ”

Instituzioek sistematikoki urratzen dute Atzerritarren Legea

zaiela, Kanarietako kopurua ez da oso altua. Orduan, nori interesatzen zaio alarma sentsazio bat transmititzea? Argi ikusi daiteke horren atzean inten-

tzio politiko bat eta ageriko arrazakeria daudela.

Nola sortu daitezke alternatiba legalak, migratzeko bide seguruak egon daitezke?

Ez dago alternatiba beharrik; gaur egungo legea betetzearekin nahikoa litzateke. Nahikoa da dokumentazioa duen eta bidaia txartel bat ordaindu dezakeen pertsona bati hona etortzeko oztoporik ez jartzea. Europatik edo Ameriketako Estatu Batuetatik datozen pertsonen ez badiegu zailtasunik jartzen, zergatik ez dugu berdina egiten Hegoaldetik datozen pertsonenkin? ●

Maiatzaren Lehenerako proposamen bat

LAN DESIRAGARRIAK ETA BURUJABEAK DENONTZAT

Maiatzaren Lehenaren kari, bere gogoeta partekatu nahi izan du Olatukoop Ekonomia Sozial Eraldatzailea sustatzeko sareak. Langileen egunari lotuta, lanaren izaeraren eta zentzuaren inguruko gogoeta egin dute, lan burujabe eta desiragarriak denontzako garatzeak gure bizitzak eta jendartea eraldatzeko bide bezala proposatuta. Bide horretan, idatzia proposamen garatuago baten aurrerapena ere bada, laster liburuxka moduan plazaratuko dutena.



Maiatzaren Lehen honetan, egunerokotik, gure eguneroko lan eta bizitzetatik, mundu berri bat eraikitzen jarraitzeko deia egiten dugu. Badakigu Maiatzaren Lehen egun garrantzitsua izan dela langileontzat pauso berriak emateko, baina testuinguru globalean pausoak atzeraka ematen ari direla ikusirik, eskubide sozial eta politikoen atzerakada erreakzionarioaren bitartez eta baldintza materialen prekarizazio etengabearekin, bidean egindako aurrerapausoetan berrestea dagokigu kooperatibismo eta ekonomia sozial eraldatzailean jarduten dugun langileoi. Olatukoop sarearen sorrera eragin zuen krisi sistemikoaren zorrozte momentuetan esan izan dugun bezala, ez dago erdibiderik, etorkizuna ez baita iragana bezalakoa izango. Pausoen norabidean, ordea, kolektiboan eragin dezakegu.

Ekonomia eta lana bizitzarako antolatzea proposatzen dugu. Oinarritzko

beharrak asetzeko, baina baita desio ditugun helburuak garatu eta gauzatze-ko, lanari zentzua eman eta sortutako aberastasun materiala eta oparotasuna zuzen banatzeko ere. Bakoitzak bere ahalmenaren arabera, eta, bakoitzari bere beharren arabera proposamen eraldatzailea oinarri izango duen eredu ekonomikoa behar dugu horretarako. Herrikideak eta langileak zaintzeko gai ez den jendarteak ez du etorkizunik, eta soldatapeko lan eredu kapitalistak erakusten digu egunerokoan zaindu baino, esplotatu, agortu eta gure bizitzei zentzua kentzen dien eredua dela. Horregatik lanaren zentzua oinarri ekarri, eta lanaren burujabetzaren ikuspegitik desiragarri egiteko bideak landu nahi ditugu.

Bidea egiteko baina, lanaren bera- ren definizio hegemonikoetatik atera, eta proposamen kolektibo berriak egin behar ditugu. Olatukoopeko kideok lana

bizitza-proiektuaren baitan dagoela ulertzen dugu eta lanaren bitartez, gure beharrak eta desioak betetzen ditugula, lan produktiboa eta erreproduktiboa bereizketatik harago, bizitzaren bizigarritasunean baikorki eragiten duten praktikak erdigunean jarritz, eta horrela, egunerokoan, ekonomia sozial, eraldatzaile, kooperatibo, (trans)feminista, euskaldun, antiarrazista eta dekolonialaren alde lan egiten dugu. Beraz lana, bizitza laguntzen duen eguneroko ekintza ekonomiko eta soziala da, giza izaeraren parte, soldatapeko lana edo enplegua baino askoz gehiago dena, gaur egungo jendarte kapitalistan ezarri digutenaren kontra.

Olatukoopen ekonomia gure bizitzaren zerbitzura jartzeko lana modu burujabean egiten dugu, hau da, lanaren inguruko erabaki nagusiak langileok hartzen ditugu. Lanaren ikuspegi integrala barneratu eta auto-eraketa eta ha-

rreman ez kapitalistak oinarri hartuta, lan duina eta komuna sortu, kudeatu eta birsortzen dugu. Gure helburua ekoizpen-baliabideen eta erabakiak hartzeko prozesuen jabegoa eta kontrola kolektiboki kudeatzea da, partaidetza integrala, demokrazia ekonomikoa, berdintasuna, justizia soziala eta iraunkortasun ekonomikoa irizpide hartuta. Horretarako, informazio gardena, errenta eta emaitzen banaketa justua, eta berdintasun-praktikak gure oinarrietan daude, proiektuko zein komunitateko kideen arteko elkar-tasun-mekanismoak sustatuz.

Lanaren burujabetza garatu eta zabaltzea proposatzen dugu, lan desiragarritzat jotzen dugun horretan gehiago lan egiteko, eta nahi ez dugun horretan ahalik eta gutxien eta banatuen aritzeko. Beraz, beharrezko lanen inguruko erabakiguneak langileen eskuetan jarri behar ditugu, lan desiragarrietarako denbora irabaziz, lan ez-desiragarriak murriztu, banatu eta automatizatuz. Bide batez, gure egunerokoak prekarizatzen dituen lan hilaren formak arbuiatzen ditugu, adibidez, errentismoa, finantza-espekulazioa edo datuen estraktibismoan oinarritutako teknologiak, lanaren ikuspegi eraldatzailearen eremuaren kontrako bezala identifikatuz.

Lanaren etorkizuna zaintza kolektiboan kokatzen dugu, eta ez teknokapitalismoaren behar eremuetan, horrela, denbora giza-harremanen lanketara bideratuz, eta ez kapitala birsortzeko interfazeetara. Bizitza sozialaren eta aldaketa sozialaren mekanismoak ulertu nahi baditugu, eguneroko bizitzaren erreprodukzioetik abiatu behar dugu, balioa emanez, zaintza bera, pertsonena, komunitatearena, lurrarena prestigioatuz, eta ezinbesteko bihurtuz.

Maria Miesek adierazi zuenez, "lanaren kontzeptu feminista bat denboraren ikuskera ezberdin baterantz bideratu behar da, non ez dagoen banatuta lan astun zatietan eta ustezko plazer eta aisialdi zatietan, baizik eta lanaren kontzeptu bat non laneko atsedeneko eta gozameneko denbora txandakatzen eta nahasten diren. Denboraren antolaketa modu eta ulerkera hori gailentzen bada, lanaldiaren luzera hutsala bihurtzen da. Egun bat edo lanez betetako bizitza oso bat ez litzateke madarikazio gisa senti-



Olatukoop: "Sareko kideok, langileok, elkarlanean, gure beharrak asetzeko antolatu ditugun tresna kooperatiboak aldarrikatzen ditugu lan desiragarriak eta burujabeak denontzat lortzeko bide gisa".

tuko, baizik eta giza osotasun eta zoriontasunaren iturri gisa".

Lan desiragarriak zentzua hartzen du gure gaitasunak lantzeko sistema bat irudikatu eta posible egiten dugunean, bai gure aisialdian, bai gure lan-denboran, lan burujabearen bidez. Eta honek denontzat izan behar du posible, zentzua galtzen du bestela, desiragarritasuna bera higatuz. Horregatik, bizitza bizigarriak eta lan burujabetza denontzat posible eta irisgarri izan behar dira. Bizitzaren sostengurako berebizikoak diren zeregin produktiboak zein erreproduktiboak (norbanakoa, taldea eta komunitatea) aitortu, balioan jarri eta bermatzea da helburua; hau da, baliabide materialak zein bizitzarako beharrezkoak diren beste hainbat eremu (harremanak, zaintzak, motibazioak...) kontuan hartuz eta giza kolektibo guztientzat eskuragarri jarritz.

Bidea luzea da, eta lehen pausoetan lanaren inguruko narratibak eraldatu beharko ditugu, diskurtso eta praktika desiragarriak identifikatuz. Alde batietik historian zehar, soldatapeko lan dependientetik haragoko bisioak batuz eta gaur egun ematen ari diren eztabaidekin gurutzatuz. Bestetik, eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen barrutik ere mundu berriak irudikatzeko gaitasuna landuz eta horretarako gure praktikak sortzen lanaren iruditegi berriak elika-

tuz. Lan publiko segurua izatea edota dirua azkar lortzea arrakasta bezala identifikatzen duten diskurtsoak ohikoak dira gurean, lan antolaketa kolektiboak edota zaintza erdigunean jartzen duten lanarekiko begiradak baztertuak edo gutxietsiak diren bitartean. Gure bidea ez da perfektua, baina uste dugu begirada berriak probokatuz, lortu nahiko genukeen lanaren ikuspegieta eragin dezakegula.

Beraz, Maiatzaren Lehen honetan, Ekonomia Sozial Eraldatzailea sustatzen dugun Olatukoop sareko kideok, langileok, elkarlanean, gure beharrak asetzeko antolatu ditugun tresna kooperatiboak aldarrikatzen ditugu lan desiragarriak eta burujabeak denontzat lortzeko bide gisa. Gure lan eta bizitzak hobetzeko, gure auzo, herri eta lurraldeetan finkatzeko, eta baita jendarte osoarentzako aldaketa esanguratsuak martxan jartzeko ere. Momentuan ezinezkoak diruditen lorpen kolektiboak borroka bidez lortuko ditugula ospatzen dugun honetan, lan burujabe eta desiragarriak sortzea, borroka kolektibora egiten dugun ekarpena dela adierazten dugu, eta mobilizazio eta antolaketan parte izatera deitzen ditugu langile burujabe eta kooperatibista guztiak.

Lana eraldatzea hasiera delako. Gora Maiatzaren Lehen! ●

Oihan Iriarte

"Oso literala naizenez, marrazten dudana ulertzea gustatzen zait"

Irudimentsua eta umoretsua da, eta marraztea bere pasioa da. Oihan Iriarte Eletxigerrak (Bilbo, 2001) *Autismoa eta biok* (Txalaparta, 2025) liburu ilustratua sortu du autismoa ikusarazteko. Bere bizipenetatik abiatutako liburua da. Arte figuratiboaz baliatu da batez ere: "Ikusi dut abstrakzioaren bidez ere nire pentsamenduak adierazi ditzakedala, baina nahiago dut modu ilustratuan azaldu".

 OLAIA L. GARAIALDE

Estralurtar bat sentitzen da *Autismoa eta biok* liburu-ko protagonista, eta horrela sentitzen da Oihan Iriarte, jendearekin erlazionatzeko gakoak zeintzuk diren azaltzeko gida banatu zuten egunean kale egin izan balu bezala. Liburua sortu du autismoa nola bizi duen ikusarazteko: "Gida moduko bat egin nahi nuen jendeak gaiari buruz pixka bat gehiago jakiteko". Liburua sortu zuenean ez zuen espero jendea identifikatuta sentitzea, baina gerora ikusi du askok islatuta ikusi duela bere burua: "Oso baliagarria izan daiteke beste pertsona autista batzuk ez sentitzeko hain estralurtar".

Iriartek liburuan argi utzi du pertsona guztientzat autismoa ez dela berdina, eta denen antzera, pertsona autista bakoitza mundu bat dela. Horregatik, uste du garrantzitsua dela ezer ziurtzat jo baino lehen, per-

"Argi potenteek eragin handia dute beregan, gauzak zehazki azaltzen ez dizkiotenean anbiguoak iruditzen zaizkio, eta batzuetan ideiak ordenatzea kostatzen zaio"



tsona ezagutzea. *Autismoa eta biok* liburuak Iriarte hobeto ezagutzeko zenbait gako eskaintzen ditu; tartean, marrazketarekiko duen interes berezia. Arte ikasketak egin ditu eta liburua Gradu Amaierako Lanaren (GrAL) emaitza da. Apirilaren 29an aurkeztu du liburu, Bilboko APNABI elkartearen.

Desgaitasuna ebaluatzeko sistemarekin "oso haserre" zegoenez, iruditu zitzaion autismoa ikusarazteko beharra zegoela eta GrALA horretarako aukera bat zela. Bizkaiko Foru Aldundira joan zen desgaitasuna birbalioztatzera, eta %33tik %20ra jaitsi zioten: "Segun eta nola ikusten zaituzten egun horretan, ehuneko bat edo beste ematen dizute. Zure sintoma txar guztiak justu egun horretan erakusten ez badituzu, badirudi gertatzen zaizuna ez dela horren txarra, primeran moldatzen zarela eta ez duzula laguntzarik behar".




Iriartek aipatu dituen erronketako batzuk dira, adibidez, argi potenteek eragin handia dutela beregan, gauzak zehazki azaltzen ez dizkiotenean anbiguoak iruditzen zaizkiola, eta batzuetan ideiak ordenatzea kostatzen zaiola. Desgaitasunaren ehunekoa jaitsi diotenez, ezin ditu zenbait laguntza eskuratu, dirulaguntzak esaterako: “Zentzugabea iruditzen zait ehunekoa bat izatea, ezin badut ezer eskatu eta diagnostikorik izango ez banu bezala bada”. Erreklamatzan saiatu zen, eta horretarako artikulua, psikologoak egindako txosten bat eta beste gauza asko aurkeztu zituen, baina ezezkoa jaso zuen bueltan.

Sentitzen du autismoaz gero eta gehiago hitz egiten den arren, oraindik “ezjakintasun handia” dagoela: “Kasu batzuetan kanpotik ez da autismoa ikusten. Jendeak uste du ez dela deus gertatzen, ongi moldatzen gara beti eta ez dugula inolako esfortzurik egiten, baina hori ez da hala”. Maskaratzear mintzo da Iriarte, hau da, ezaugarri autistak kamuflatzeaz, neurotipikoa dela iruditzeke: “Oso ariketa kontzientea eta aktiboa egin behar dut nire ezaugarri autistak ezkutatzeke. Oso nekagarria da. Jendearekin egon ostean ez daukat ezer egiteko energiarik, nire kontura egoteko denbora asko behar dut eta batzuetan erabat nazkatuta amaitzen dut”.

BELTZA NAGUSI

Kolore asko erabili ditu autismoaz mintzatzeko, baina beltzak protagonismo handia dauka liburuan. Batez ere, krisialdiaren atalean erabili du beltza, kolapso emozional bat irudikatu nahi zuelako: “‘Meltdown’-a da fisikoki eta mentalki gehiago ezin duzunean, kanpotik eta barrutik datorren guztia gehiegi denean, eta nolabait kanporatu behar duzunean”. GrAla aurkeztu zuenean, irakasleetako batek galdetu zion zergatik ez zituen grisak erabili, baina Iriartek argi zeukan berak bizi duen moduan islatu nahi zuela: “Momentu horietan ez ditut grisak ikusten, dena da beltza, gordina eta biolentzia, bizi dezakedan egoerarik estresagarriena delako”.

Koloreez gain, bereziki arte figuratiboaz baliatu da emozio eta bizipen horiek guztiak irudikatzeko. Betidanik gustatu zaio marrazketa: “Oso literala naizenez marrazten dudana ulertzea gustatzen zait”. Horregatik, zuzen, gauzak diren bezala eta gordin marrazten ditu, eufemismoetan eta apainduretan galdu gabe: “Nahiago dut gauzak jendeak erraz uler ditzan esan”. Hala ere, urteekin abstrakzioarekiko gustu apur bat garatu du eta krisialdiaren atalean marrazki abstraktuagoak egin ditu: “Ikusi dut abstrakzioaren bidez ere nire pentsamenduak adierazi ditzakedala, baina nahiago dut modu ilustratuan azaldu”. ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Begiak aukeratuko nituzke, ironikoki ezin dudalako horietara begiratu. Beti entzun dut begiak arimarako leihoak direla, eta uste dut egia dela. Asko esaten dute sentitzen dugunari buruz. Uste dut nire adierazkortasunaren gehiengoa ikasia dela, baina begien kontua berezkoa da. Gainera, liburuan irudikatzen dudan pertsonak begi ugari ditu, badirudielako leku guztietara begiratzen dudala, begiratu behar dudan tokira izan ezik”.

LIBURUAK



Berdea da more berria liburua hiru hizkuntzataraz itzuli da. Labetik atera berria da frantsesezko itzulpena.

Opari bat eta bi txibato

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Opor txikietatik bueltan naiz, asteartea, herrian geratutakoa, lanera joan beharrik ez dagoenean eguna lasai hartu eta ingurukoekin etxe abarrean gozatu, indarberrituta nator. Opari bat topatu dut mahai gainean. Berehala jabetu naiz ez dela niretzat, gaineko oharrean Onintza Irureta Azkune lanean izen-abizenak irakurri bezain pronto. Bilduta egon izan balitz ez nukeen irekiko, baina hemen daukat liburua, eskuarte, eta ezin tentazioari eutsi. Nire frantses traketsean irakurtzen hasi naiz, zerbait ulertu nahian.

Borrokan! Comment gagner une grève féministe (Nola irabazi greba feminista bat). Iruretak 2019an idatzitako *Berdea da more berria*-ren itzulpena frantsesera, ELAren Manu Robles Arangiz Fundazioaren eta Frantziako Edi-

tions syndicalistes elkartearen arteko elkarlanak emandako fruitua. Hiru hizkuntzataraz itzulia izan da 378 egun iraun zuen Bizkaiko zahar egoitzetako langileek egindako grebaren kontaktuzun hau. Gaztelaniara (*No eran trabajadoras, solo mujeres* izenburupean, Maria Coleraren itzulpena; Manu Robles Arangiz Fundazioak argitaratua), katalanera (*El verd és el nou lila* izenburupean, Oriol Vallsen itzulpena; argitaletxea Tigre de Paper) eta, oraintxe, frantsesera (*Borrokan! Comment gagner une grève féministe* izenburupean, argitaratzailea Editions syndicalistes). Lehen bien kasuan jatorrizkoa itzuli da, ezer gehitu gabe. Eskuarte, dudaren honen kasuan, baina, sarrera bat gehitu dio ELAk, eta sindikatua aurkeztu die Frantziako irakurleei; zatirik mardulena hartzen du, ondoren, Onintza


Irureta Azkune etxe honetako kazetariak idatzitako testuaren itzulpenak; eta, amaitzeko, Aiala Elorrieta Agirrek (Manu Robles Arangiz Fundazioa) soldata arrakalaren inguruan egindako analisia. Horixe baita, ertz asko dituen borroka honen muinetako bat: generoak baldintzatutako soldata arrakala.

Oparia Onintzari bere mahaian utzi diot eta bi txibato piztu zaizkit buruan: herdoiltzen hasitako frantsesa berriz praktikatzen hasi beharrean naizela eta berrirakurri behar dudala *Berdea da more berria*, tamalez ez baita modaz pasa. ●

'*Berdea da more berria*'
erosi nahi baduzu:



Iraultza, iraultza baino lehen



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Böblingen, Germaniako Erromatar Inperio Santua, 1525eko maiatzaren 12a. Georg Truchsess von Waldburgek Wurtembergeko nekazari matxinatuak mendean hartu zituen. Handik hiru egunera, maiatzaren 15ean Filipe Hessekoak eta Saxoniako dukeak bat egin zuten errebelde turingiarrak Frankenhausen zapaltzeko; 5.000 nekazari inguru hil zituzten. Eta maiatzaren 22an Lorenako dukeak alsaziar matxinatuak garaitu zituen.

Aurreko hilabeteetan Habsburgoarren armada –inperioko printze eta nobleen babesaz– Italian zegoen, frantziarren aurkako gerran. Baina udaberri hartan etxe barruko gerra itzaltzeari ekin zioten, baita bortizki lortu ere. Uztailerako 1924an piztutako Alemaniako Nekazarien Gerra amaitua zen: 100.000-130.000 nekazari hilda lortu zuten garaipena.

Historiografiak, tradizionalki, gatazka ekonomiko nahiz erlijiosotzat jo izan dute gerra hura, nekazari katoliko eta noble protestanteen arteko bereizketa garbia eginda. Martin Luterok 1525eko apirilean bat egin zuen nekazarien kausarekin, printzeen gehiegikeriak salatuz. Maiatzaren hasieran, ordea, aurkako bandora egin zuen jauzi, nekazari matxinatuen indarkeria aitzakia hartuta; erreforma protestanteak bidea egingo bazuen agintarien babesa behar zuela ulertu zuen.

XV. mendearen bigarren erdian, nobleek zerga berriak ezarri zizkieten he-



Nekazari errebeldeak, Bundschuheko banderak eskutan, noble bat inguratzen; 1939ko xilografia.

rritarrei. Presio horrek eragin zuten agintari zibil nahiz erlijiosoen aurka egitea. Altxamendua inperio osora zabaldu zen eta meatzariak nahiz hirietako artisauek bat egin zuten nekazariarekin.

Mugimendua hedatzea indargunea zirudien arren, kohesio faltak ahulda-de eragin zuen azkenean. Baina antolatze ahaleginak ere egin zituzten. Esaterako, Baltringeneko matxinatuek Hamabi Artikuluak izeneko eskakizun zerrenda osatu eta 25.000 zabaldu zituzten. Eskakizunetan, gainera, inflexio puntu bat geratu zen agerian: hasieran, nekazariak “antzinako moduetara” itzultzea eskatzen zuten, azken hamarkadako neurriak atzera bota zitzaizkien. Baina “Jainkozkoko legea” ezartzeko eskatzen

hasi ziren gero. Kutsu erlijiosoaren eta ebanjelioen erreferentzien atzean, ordena berri bat ezartzeko beharra zegoen, Antzinako Errejimenarekin hausteko nahia. Frantziako Iraultza baino bi mende eta erdi lehenago, Alemaniako nekazariak iraultza egiten ahalegindu ziren.

Karl Marxek esan zuen “alemaniar historiako gertakizunik erradikalena” izan zela. Friedrich Engelsek, aldiz, “alemaniar herriak sekula egin duen ahalegin iraultzaile ikusgarriena” deitu zion. Baina duela 500 urte ere, gatazka betean, baziren iraultzaren izaeraz jabetu zirenak. Johannes Stumpf (1500-1578) kronikari suitzarrak zera idatzi zuen: “1525 honetan isuri den odolak nahikoa izan behar-ko luke tirano guztiak itotzeko”. ●



SCIENCE PHOTO LIBRARY

Homo erectusek hitz egiten zekiten?

Rudolf Botha hizkuntzalari hegoafrikarrek hipotesi bat bota berri du *Homo erectus*-i buruz: espezieak ahozko komunikazio moduren bat garatu zuen duela milioi bat urte baino gehiago. *Homo sapiens*-a da, dakigunez, hitz egiteko gai den espezie bakarra eta, beraz, hortik ondorioztatzen da hizkuntzak ez dituela 100.000 urte baino gehiago. Bothak badaki bere

hipotesia egiaztatuko duen froga fisikorik ez duela aurkituko, baina logikan oinarritu du bere iritzia: *Homo erectus*-ak irla bakartuetara iristeko gai izan ziren –eta horren frogak badaude–, nabigatzeko gai zirelako, eta nabigazioak taldeko antolaketa eta komunikazioa eskatzen du, baita ezagutza belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititzeko gaitasuna ere. ●

SASOITU

MAIATZA EMANKORRA ETA OPAROA: “MAIATZA URTEKO ARDATZA”



**AMAIA DIAZ DE
MONASTERIOGUREN OSINAGA**
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

Sasoitsu, osasuntsu eta bizipozez gainezka egotea dut helburu. Jaten dudanak, egiten dudanak eta pentsatzen dudanak eragina du oreka eta malgutasuna lortzeko eta tentsioa saihesteko.

Etxeko lorategia distiratsu eta koloretsu dago. Intxaurrendoa loraldian eta hazkunde betean dago, adarrak hasi dira poliki-poliki hostoz janzten. Hostoei esker fotosintesia egiten dute, hau da, zuhaitzak bere elikagaiak ekoizteko erabiltzen duen prozesua.

Hau da nire proposamena: Lurrarekin, naturarekin bat egin, “Lur hartu”. Nire lur zaila zaindu naturaren bidez. Ondo jan eta gorputza mugitu naturan: belarretan oinutsik ibili, errekekako uretan ibili, baso bainua praktikatu, naturaren soinua entzun, itsaso bainuak hartu. Udaberria gorputza mugitzen hasteko garaia da, giharrak landu, indartu eta osatzekoa.

Maiatzean sustrai, kolore berdedun barazki, eta perretxikoen garrantzia azpimarratu nahi dut.

ERREFAUTXOAK

Errefautxoa kruziferoen familiako barazkia da. Zapore pikantea eta testura kurruskaria ditu. Hostoak eta sustraia jangarriak dira eta gorri, zuri edo beste kolore batzuetakoa izan daiteke.

Zertan laguntzen gaitu?

Hostoak C bitaminan, kaltzioan eta burdinean aberatsak dira. Sustraiak C bitamina iturri onak dira, antioxidatzaile gisa funtzionatzen dute eta sistema immunologikoa indartzen laguntzen dute. Zuntz disolbagarri ugari dute eta kurruskariak izanik, mastekatuta astatasuna sentiarazten dute. Gorputza garbitzen, toxinak kanporatzen laguntzen



dute, gibel eta giltzurrunen aktibazioaren bidez. Digestioa hobetzen dute, idorreria arintzen dute eta heste-flora osasuntsua mantentzen laguntzen dute.

Nola jan eta nola prestatu:

Hostoak entsaladan, zopan, kreman, frijituta...

Sustraiak gordinik jaten dira, entsaladan edo aperitibo gisa. Egosi edo erre ere egin daitezke. Ozpinez ondu daitezke edo ogitartekoei gehitu. Saltsatan ere erabiltzen dira.

PERRETXIKOAK, ZIZAK

Ur asko dute, zuntzetan aberatsak dira eta kalitatezko proteinak dituzte. Bitamina (A,B,C) eta mineraletan (burdina, fosforoa, iodoa, magnesioa eta selezioa) aberatsak dira.

Nola jan eta nola prestatu:

Baratxuri freskoarekin eta arrautzarekin udaberriko plater berezia osatzen du. Pasta italiarrarekin jan daiteke, edo paellan edo entsaladan, baina ez dut gomendatzen perretxikoa gordinik jatea.

BARATXURI FRESKOA

Baratxuri freskoa funtsezko osagaia da sukaldean, eta hainbat modutan erabil daiteke, gordinik edo erreta. Zapore bizi eta pikantea izanik, indartu egin dezake plater askoren zaporea, eta osasunari ere mesede egiten dio.

ERREMOLATXA

Sustraia borobil eta gorria da. Lepotik hostoak ateratzen zaizkio eta jangarriak dira. Haragia, berriz, gorri kolorekoa, oso distiratsua da. Zapore gozoa dute.

Zertan laguntzen gaitu?

Barazki osasungarri, arin eta asegarria dugu. Azido foliko eta C bitamina iturri bikaina da. Rubidioa du, eta elementu mineral horrek beste mantenugai batzuk hobeto asimilatzen lagun dezake, digestioan laguntzen baitu.

Osasun kardiobaskularrerako, potasio iturri bikaina da, eta potasioa arteria-tentsio normala mantentzen laguntzen duen minerala da.

Elikagai bikaina da kirolarientzat: aberatsa da karbohidrato geldoetan eta gatz mineraletan; elikagai ezin hobea da ariketa egin aurretik energia lortzeko.

Ez dut gomendatzen...

Erremolatxa azido oxalikoan aberatsa da. Giltzurrunean oxalatozko harriak sortzeko joera duten pertsonentzat ez da gomendagarria.

Nola jan eta nola prestatu:

Entsaladan, hummusean, gazpatxoan eta erremolatxa zukua edo irabiatuak eginda. ●

A ZE FAUNA!

MARI ZURIA, ELURRAK URTZEN DITUENA



NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

T. R. SHANKAR RAMAN / CC A-SA-4.0



PIEGANTHAN / CC A-SA-4.0

Anbotoko Mari ezagutzen dugu askok, Aralarko dama, Aketegi-ko dama eta beste izen ugariz ere ezaguna dena. Amalur izaki gorputza hartua da Mari, gure jainkosa, euskaldunon artean ezaguna. Soineko apainez jantzitako andere bezala aurkezten da herri askotan. Baina nor ote da Mari zuria, Euskal Herriko zeruak zeharkatzen dituen? Behi bidetako andere xuria ere deitzen diote Zuberoan, agertzen denean mendietako elurrak urtzen hasten direlako, eta horrela, bideak zabaltzen ditu, behiak mendira joan daitezen. Biarnon Maria Blanca deitzen diote eta hortik hartu zuen izena Pirinioetako portu famatuak: Marie Blanche.

Mari zuria aipatzean, sai zuriari (*Neophron percnopterus*) buruz ari gara, putre zuri edo arrano zuri bezala ere ezaguna leku batzuetan. Izenak dioten bezala, kolore zuria du hegan egiteko lumetan izan ezik, horiek beltzak baititu. Kolorez zikoina ematen du, baina haren hanka luzeak nabariak dira hegan doanean, sai zuriak, aldiz, hanka motzak ditu. Mokoia ez du handia, baina oso bereizgarria du aurpegia, lumarik gabea eta hori kolorekoa, xelebre xamarra. Gaztetxoak arre ilunak izaten dira, ia beltzak eta urteak igaro ahal argitzen dira, 4 edo 5 urte dituztenean helduaroko lumaje zuri-beltza lortu arte.

Sarraskijalea da sai zuria, animalia txikien eta aziendaren sarraskia jaten du gehienbat, eta sarraskia leku irekietan biltzen du. Baina nahiko espezie berezia da, teknika bereziak erabilia arrautzak ere

SAI ZURIA *Neophron percnopterus*

TALDEA: Ornoduna / Hegaztia.

NEURRIA: Mokotik-isatserra: 55-65 cm.
Hego-luzera: 155-170 cm.

NON BIZI DA? Harkaiztietan, leku irekietan.

ZER JATEN DU? Sarraskiak, arrautzak, gorozkiak.

BABES MAILA: Europa mailan babestuta dago.

jaten baititu: arrautzak txikiak direnean, horiek hartu eta harrien aurka botatzen ditu oskola apurtu eta jateko; arrautzak handiak direnean aldiz, alderantziz, harria mokoarekin hartu eta arrautzaren aurka botatzen du hori puskatzeko. Koprofagoa ere bada (*copro*, gorotz; *fago*, jaten duena), hau da, gorotzak jaten ditu, txahalenak batez ere. Aziendaren gorotzek karoteno ugari dituzte eta sai zuriak ezin dituenek konposatu horiek ekoiztu, gorotzetatik hartzen ditu. Karotenoak dira bere aurpegiaren kolore horia eragiten dutenak.

Hegazti honek Sahelgo lurraldeetan igarotzen du negua eta martxo-apiril aldera dator gurera kumatzerara: 20 egunetan egiten du bidaia. Bikoteak bizitza osoan

zehar mantentzen dituzte eta, enarek bezala, habia bera erabiltzen dute urtero: batzuetan pare bat izaten dituzte eta urtero horien artean aukeratzen dute. Putre espezie bat izanik, beste putreek bezala harkaiztietan egiten dute habia.

Zoritxarrez, espezie hau oso sentibera da eta ondorioz, ugalketa arrakasta tasak ez ditu oso altuak: bikoteko 0,51 txitakoa, eta aurreko urteetakoan aldean nabarmen egin du behera, gainera. Izan ere, mundu mailan "arriskuan" dago sailkatuta. Luze bizi den espeziea da eta horrek "oso geldoa" dela esan nahi du. Esaterako, heldutasun sexuala 7 urte dituenean lortzen du, eta ugalketa garaia ere luzea du: martxoan hasi eta irail-urrira arte irauten du. Beraz, populazioak errekupeartzeko denbora asko behar da, eta horrek kalteekiko sentikorragoa egiten du espezie hau. Giza jardueretik ere izugarri sentibera da sai zuria, arrautzak edo txitak galtzeko arrisku handia du kumatze garaian habia inguruan molestiak badaude. Ikusi izan da eskaladak, parapenteekin hegan egiteak edo kirol probek, habiatik gertu pasatuz gero, txiten heriotza eragiten dutela. Hau dela eta, ekintza horiek sai zuriaren kumatze garaian erregulatu egiten dira, populazioen beherakada handia ekidin asmoz. Baso-lanak eta obrak habiatik kilometro bateko erradioan egiten direnean ere hilgarriak dira txitentzat, eta hau gutxi baltitz, ekintza hauek kumatze garaitik kanpo egiten direnean ere, hauen magnitudearen arabera bikotearen habian edo lurraldean aldaketak eragin ditzakete. ●

EGURRA DIAMANTEA BAINO ARRAROAGOA DA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Egurra diamanteak baino arraroagoa, bakanagoa da. Bai, unibertsoan errazagoa da diamanteak topatzea egurra baino. Karbono hutsa da diamantea, eta nonahi sor daiteke. Egurra emango duten zuhaitzak, aldiz, oso bizi baldintza zehatzak dituzten planetetan ez beste inon haz daitezke. Zeruzale baten, Neil deGrasse Tyson astronomo, kosmologo, idazle eta zientzia jendarteratzailearen hitzak dira. Nire bihotzeko bakanetakoa, zientziaren munduan izar bat da; 2007an, munduan gehien eragiten duten 100 lagunen arteko izendatu zuen *Time Magazin*-ek, eta, 2008an, "Zientziako 50 Garun Hoberenak" multzoan hautatu zuen *Discover Magazin*-ek. Tyson jaunaren edozein burutazio irakurtzen-ikusten dudanero, ilunabarrean etxe atariko arborearen azpira joan eta pixkanaka egun horri dagokion kosmosa nola antolatatu eta bistaritzen denari begira jartzen naiz, ia beti negar-aginean.

Bart arratsean, zuhaitzena eta diamanteena irakurri ondoren, etzan eta negar batean jaiki ezinik egon nintzen, negar-antsiz, luze. Izan ere, zuhaitzei gaizki tratatzen eta erasotzen dien zenbat jende dago! Diamantearena jakin edo ez, nola osatu dugu zuhaitzen balio izugarrien jakintza oraindik ere ikaste-txeetatik hain urrun duen jendartea; eta,



panorama ikusita, ez du urte asko eta asko baino lehenago zuzentzeko zantzu arrastorik. Euskaldunok, ustez arbolekin izugarritzko lotura estuak izan ditugun eta ditugunok. Berriz negarrez.

Zuhaitzen egurra diamanteak baino balio handiagoa duen altxorra dugu. Unibertso zabalean, toki ugartan sor daitezke diamanteak: planeta erraldioen bihotzean, etsai antzeko munduen atmosferan, hildako izarren hondakinetan... Lurrean hain ohikoa den egurra, ordea, infinitu azkengabe bakanagoa da.

Zuhaitza hazteko oreka miragarri bat behar da: atmosfera oxigenoduna, ur likido, tenperatura aproposak eta bizitzari eusten dion ekosistema. Baldintza horiek gurea bezalako planetetan bakarrik daude, non bizia milioika urtez garatu den.

Egurra-diamantea uztarri honek gogorarazten digu benetan baliotsua ez dela distira egiten duena, bizitza ematen duena bai-zik. Zuhaitz bat, bere adarrak zerurantz, zer da ba, Lurrean modu berezian lerrokatu ziren indar kosmikoen emaitza ez bada. Diamanteak kristal mota bat baino ez diren unibertsoan, egurra mirari bat da, bizitza bere formarik berezienean.

Beharbada, bada garaia benetan arraroa eta baliotsua dena berraztertzeko.

Hurrengoan, zuhaitz baten etorkizunaz erabakiren bat hartu behar duzunean, begira iezaiozu den unibertsoa mirariaren pareko gisa, gu denon arnasaren iturri amaigabea.

Aizkorak zorroztu, eta motozerrak, guraizeak eta zerroteak ere bai, erabiltzeaz gero zorrotza hobe, baina zertarako erabili da galdera. Begi zerra-ireki batean unibertsoa gairik bakanena, gairik arraroena emango duenari lepoa moztuko diogu. Eta zauritik negarra jarioko du.

Zuhaitz horretatik eratorritako egur horrek zure bizitzarako behar duzun zerbait sortuko badu (mahaia, ohea...), gaitzerdi. Plastikoz egindakoa baino hobe izango da. Eta, zurezko mahaian ari zarenean, gogoan izan, diamante artean bizi zara. ●



Bizi Baratzea
Lurrari begiratzen diogunon Orria



eginbizibaratzea.eus

Kide egiteko arrazoiak

"Bizi Baratzea tresna oso lagungarria egiten zait nire egunerokoan, naturarekiko jakindurian sakondu eta lurrarekiko daukadan konexioa sendotzeko"

Laura, Debatik

OIHANARTIA

ALPEETAKO HEGOALDETIK NAFARROA BEHERERA, ABELTZAINZA ESTENTSIBO ETA DIBERTSIFIKATUAREKIN



GARAZI ZABALETA

Proventza eskualdean, Alpeen hegoaldean abiatu zuten Lili Saint-Laurent euskaldunak eta Mathias Guibert proventzarrak abeltzaintza proiektua duela hamar urte pasatxo. “Ardi, ahuntz, behi, txerri eta pottokekin plantatu ginen etxalde dibertsifikatua landuz, baina laborantza mundua zailtzen ari zen han idorteagatik, otsoaren arazoagatik eta beste zenbait arrazoiengatik”, azaldu du Saint-Laurentek. Aurreko faktoreei Euskal Herrira itzultzeko gogoia ere batu zitzaion, eta horrela erabaki zuten Proventza atzean utzi eta abereak hartuta Landibarren alokairuan hartu zuten Oihanartia etxaldera mugitzea. 2024ko buruila etorri ziren gurerak.

ETXALDEA ALOKAIRUAN HARTZEKO AUKERA

Alpeetan hamar urte inguru egin zituen bikoteak alokairuan, eta horrek mugitzeko askatasuna ematen ziela azaldu du proiektuko kideak. “Hemen ere alokatzeko zerbaitek xerkatzen hasi ginen, entsegu bat egiteko, eta ikusteko gure etxaldeak Euskal Herrian ze martxa duen”. Etxaldearen jabeak eraikinaren sabaia berritu zuen eta bertan bizi dira Saint-Laurent eta Guibert. “Hemen berean bizitzeko parada izatea biziki ona da guretzat. Guk ekipatu dugu etxaldea, jendezko makina eta halakoak jarri, baina gainerakoa bazegoen hor eta alokatzen dugunez, ez da halako lana izan hona etortzea”, gehitu du.

Merinos d’Arles arrazako ardiak kenduta, aurreko etxaldean zituzten abere guztiak ekarri dituzte Euskal Herrira: 150 ardi burubeltz, hogeitabat pirenaika ahuntz, hamar bat highland behi, beste hainbeste zerri eta pottokak. “Etxalde



ttipia gara, Alpeetan ere horrela ginen, eta gure sistema zinez mendian oinarritzen da, mendi eta larreak beharrezkoak ditugu”, dio laborariak. Laborantza biologikoan ari dira Oihanartiako kideak, eta Idoki sormarkan ere sartu dira. “Guretzat zinez ebidentea zen ingurumenaren babesari buruzko galdera berpentsatzea”, gehitu du.

HARAGIA ETA ESNEKIA ZUZENEKO SALMENTA BIDEZ

Ardi esnearekin gasna, gaztanbera eta jogurta egiten dituzte Oihanartian, eta hori da gaur egun ekoizpenaren zatirik garrantzitsuenak. Axurikia, pittika, idikia eta txerriak ere saltzen dituzte, dena den.

“Gasnategi ttipia dugu etxaldean, eta hortan bertan saltzen dugu gure produktua, edo bestela merkatuetan eta ekoizle dendetan”, azaldu du Saint-Laurentek.

Ekoizpenaz gain, Euskal Herriko hainbat laborari mugimendutan inplikatu dira ekoizleak, esaterako, ELB sindikatuan, Biharko Lurraren Elkartean eta Euskal Herriko Etxe Ekoizleen elkartean, baina baita bertako arrazen alde lan egiten duten hainbat elkartetan ere: Burubeltza elkartean, Ahuntz Pirenaikan eta bertako pottoka sustengatzeko elkartean, esaterako. “Ontsa da haiekin guztiekin lan egitea eta arraza horien sustengatzea, balorizatzea eta ezagutaraztea, horretan engaiatuak gara”, amaitu du. ●

ASIER URBIETA, FAISAIEN IRLA

“Guretzako mugarik ez dago eta horrela estreinatu behar zen: mugarik gabe”



Apirilaren 23tik Ipar Euskal Herrian eta apirilaren 25etik Hego Euskal Herrian; film oso gutxi estreinatzen dira horrela aretoetan. Halaxe egingo du *Faisaien Irla*-k. Fikzioa baitira mugak, horrela dio Asier Urbieta (Errenteria, 1979) zuzendariak: ez dira existitzen, gizakiok asmatu ditugu, “baina ondorio oso tragikoak dituzte”. Bai, bistan denez, Bidasoa ibaiak. Azken urteotan gutxienez bederatzi pertsona hil dira hura zeharkatu nahian. Errealitatetik asko duen fikziozko istorio bat kontatzen du pelikulak.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Hendaian bizi den bikote gazte bat dira Laida (Jone Laspiur) eta Sambou (Sambou Diaby). Irunen jaioak dira biak, han egiten dute egunerokoaren zatirik handiena, han dituzte lagunak, lantegia... Jendarmeen kontrola igarotzen dute, hortaz, makina bat bider egunean. Ez dago esan beharrik poliziek nor geratzen duten bestea baino gehiagotan. Baina auzia, filmaren hari nagusia, hortik baino, gehiago doa beste honetatik: Irun aldeko ibai-ertzean ibilian doazela, bi migratzaile laguntza eske ikusiko dituzte ibaiaren erdian, itotzeko zorian direla. Laidak salto egingo du laguntzera; Sambouk, ez.

Ziur buelta asko emango zenizkiola: zuk, salto egingo zenuke?

Egia esan, ez dakit. Benetako gertakaria da, hala irakurri nuen: igande goiz batez, ibai ondotik zihoazen txirrindulari batzuk eta topatu zituzten bi pertsona laguntza eske, itotzen ari zirelako. Bat bota zen ibaira; bestea, ez. Argi ikusi nuen kontu hori pelikulan sartu nahi nuela. Andoni [Andoni De Carlos; biak aritu dira gidoigintzan] eta biok aha-legindu gara erantzuna topatzen horri, eta puf, oso zaila da. Azkenean, errealtatea zure begien aurrean tupustean aurkitzen duzunean inkontzientek agintzen du, eta pentsatzen dut askotan idealak eta printzipioak alde batera

uzten dituzula. Zaila izan behar du horrekin bizitzea.

Niretzako, horregatik, bi pertsonaia printzipalen artean zailena Sambou da. Zeren egiten du egin behar ez dena. Laidak, aldiz, egiten du egin beharko litzatekeena, eta hor jarraituko du bere ideiekin, mundua aldatzeko grinarekin... Baina Sambouk lan handia izango du bere buruarekin, “zergatik ez nintzen bota?” horri erantzuten.

Gordina da pelikula.

Bai... Errealitatea da gordina. Guretzat, adibidez, idazte prozesua izan da oso gordina. 2021ean hasi ginen, lehenbiziko pertsona hil zela jakin genuenean. Egunkarian irakurri nuen pertsona beltz batek bere buruaz beste egin zuela Bidasoa ibaiaren parean. Antza, pertsona horrek aurrez lortu zuen ibaia gurutzatzea. Bi aldiz, gainera. Baina Frantzia harrapatu eta bueltatu egin zuten Irunera. Erabat ilegalki, esan behar da. Psikologikoki hondoratuta zegoen, eta urkatu egin zen ibaiaren aurrean.

Hori irakurrita hasi ginen pelikularako gidoian pentsatzen, hasi ginen idazten, eta bitartean hil ziren beste bederatzi pertsona. Horietatik sei itota, eta beste hiru trenak harrapatuta. Ziburu parean izan zen, Baionarako bidean zihoazela. Oso fuertea izan zaigu, zeren horixe da errealtatea. Fikzioak errealtatea gainditzen du.

Grabaketa lanetan ibili zaretenean zeuen begiekin ikusi duzue.

Batzuoi ezagunago zitzaigun Bidasoan gertatzen dena, baina gurekin lanean aritu diren ekipoko hainbatek ez zuten ezagutzen, eta inpaktua eragin die. Irungo Harrera Sarekoek lagundu digute guztiari testuingurua ematen. Gazte mi-gratzaile asko ikusi ditugu egoera txarrean, galduta, non dauden ez dakitela; ez dakite, ezta ere, muga bat dagoenik. Afrikatik etorri, desertua eta abarrak

gurutzatu, Mediterranea hala moduz pasa, European sartzen dira eta topo egiten dute muga ikusezin eta anker honekin. Zubian, benetako jendarme patruila baztertzen zenean gure fikziozko patruila ipintzeko, gure begiekin ikusi dugu jendea saiakerak egiten muga gurutzatzeko... Baita jendea bueltan Irune-
ra eramaten ere. Oso bortitza da ikustea Poliziak nola uzten dituen Behobian, ezer esan gabe, botata. Ez dute, gainera, jendarmeen kotxe ofizialarekin egiten.

Azken detaile hori agerikoa da pelikulan...

Saiatu gara, bai, errealtatetik ahalik eta gertuen egoten.

Detaile interesgarri asko ditu pelikulak. Hautaturiko musika esaterako, edota trenak agertzen diren hainbat plano...

Errealtatea hain da aberatsa, eta hainbeste ematen du... Bi urte eman ditugu idazketan, ez dela hainbeste ere, baina hartu dugu behar beste denbora.

Musika aipatu duzunez: Nakar musika taldearen oso zalea naiz, ipinitako abestia bereziki gustatzen zitzaidan, letraren zati horrek justu badu lotura istorioarekin, eta Jone [Laspiur; Laida protagonista gorpuzten duena] bertako abeslaria da... Gero, baita ere, Ruper Ordorikaren *Ibaia* abestia entzuten da; horrek ere badu zerikusia, eta letra izugarria da. Zarama taldearen *Iñaki*, ze urrun dago Kamerun ere sartu dugu. Horren harira, gidoia idazten ari ginela, ikusi genuen txio bat iradokitzen abestia arrazista zela... Ba, esan genuen: pelikulan sartuko dugu.

Sambou aktoreak berak bizitzan ere badauka berea: euskalduna da, jatorri senegaldarrekoa, eta baditu identitate arazoak. Afrikara joaten denean “zuria” deitzen diote, eta hemen, kalean, sarri ez diote euskaraz egiten, edota bere izena ez dute ongi ahoskatzen. Horregatik, interesgarria iruditzen zitzaigun pelikulan Sambouri izena aldatzea [tarteka lagunen batek “Iñaki” deitzen dio].

Identitate arazoena aipatu duzu, eta oroitu naiz *Greenbook* pelikulan ere islatzen dela halakorik.

Protagonistak dio: “Beltzentzat ez naiz beltza, baina zurientzat beltza naiz, eta gizon osoa ere ez naiz, homosexuala naizelako”.

Begira, egia! Ez nintzen gogoratzen! Seguru inkontzientean zegoela... hortik hartuko nuen zerbait!

Faisaien Irla-ren estreinaldia dator, hain justu, *Miñan* antzezlanaren ostean –Sambou Diadyk gorpuzten du antzezlaneko protagonista–. Aspaldian antzokiak ez dira horrenbeste bete. Badirudi publikoak estimua diela horrelako lanei, ala?

Oso bereziak eta beharrezkoak dira. Eta ikusten da, gutxika-gutxika bada ere,





obra hauen prozesuak motelak baitira, ari garela sorkuntzatik ere gertatzen ari dena kontatzen. Amets Arzallusen eta Ibrahima Balderen liburua, gerora Ander Lipusek zuzenduriko antzerki-obra, Fermin Muguruzaren dokumentala, guk pelikula... Oso harrera ona eduki dute guztiek, eta uste dut oso garrantzitsua dela sozializatzea, zeren eta komunikabideek kontatu dute, ez agian titular handietan, baina kontatu da. Kontua da immunizatuta gaudela hainbeste berri eta hainbeste hildakorekin leku askotan, Gazan esaterako, migrazioarekin Mexikon, Alemanian mugak itxi dituzte, Mediterraneoan nola dagoen, Aita Mari... Baina badirudi ez dela barrena iristen. Hortaz, ondo daude sorkuntza hauek, badirelako jendearengana iristeko beste modu bat.

***Miñan*, aita santua zenak ere gomendatu zuen.**

Bai, bai bai!

Fokuak ordea, gehienbat, Mediterraneoan daude ipinita. Gutxiago Bidasoan, eta zer esanik ez, *Miñan*-en kontatzen den moduan, desertuko odisea horretan guztitan. Egia da, hori ez da kontatzen. Fokua ez

Immunizatuta gaude hainbeste berri eta hildakorekin leku askotan



dago hemen. Datuak, hala ere, handiak dira. Aurrekoan irakurri nien Irungo Harrera Sarekoei: 2018tik hona 60.000 pertsona pasatu dira harrera saretik. Ia 10.000 urtean, beraz. Izugarrikeria da. Eta kontabilizatuta egongo ez direnak, zeharka ere igaroko baitira asko.

Fokua hona ere ekarri behar da, hortaz.

Uste dut baietz. Irunen, gainera, izugarritzko lana egiten ari dira. Baita Lapurdin ere: Pausa taldea dago Baionan, Urruñan Bidasoa Etorkinekin... Jende asko ari da laguntzen. Inguru horretan oso inplikaturik dago jendea, hala sentitu dut. Aurrestreinaldiak egin ditugu Baionan, Donibane Lohitzunen, Urruñan... eta oso harrera beroa jaso dugu. Jendeak gertutik bizi duelako, segur aski. Oso

presente dute gaia, eta Irunitik behera ez hainbeste. Atentzioa eman dit horrek.

Mugak "marra imaginarioak" direla ipini duzue filmaren hasierako errotuluan.

Fikzioa dira, ez dira existitzen. Guk asmatu ditugu. Baina jakina, ondorio oso tragikoak dituzte. Gustatuko litzaiguke muga horiek kentzea.

Migrazioaz ez ezik, titulura etorrita, Irun eta Hendaia arteko Faisaien uharteaz hitz egin behar dugu. Horrek ere fikziozkoa dirudi... Sei hilabetez da Frantziako Estatuarena, eta beste sei hilabetez Espainiarena. Txandaka. Eta beti da Euskal Herriarena. Baina han bertan ez dago deus, monumentu bat besterik. Ez dago faisairik, ez da inor bizi... Guretzako bazen, toki erreal bat izatez aparte, pelikularen metaforarik argiena. Ba ote toki absurdoagorik irla hori baino?

Hildako bat agertzen denean, ordea, ez da inorena.

Eta gertatu izan dira, badira benetako kasuak. Inork ez du ardurarik hartu nahi. Bidasoa ibaia, gainera, zatituta dago mugarengatik; hortaz, ea nork esan





dezakeen hildakoa non agertu den...
Oso absurdoa da dena.

Atzerriko zine jaialdietan egon zarete filma aurkezten. Ziur bat baino gehiago galdu dela lur administratiboetan.

Göteborgeko (Suedia) jaialdian gogoan dut atentzioa eman ziela oso ongi ez jakiteak pelikula non dagoen kokatuta. Zeren protagonistek hitz egiten dute euskaraz, baina frantsesez ere bai, eta irla hori bi estaturena da, Espainia-rena eta Frantziarena, baina ikusten da pelikulan ez dagoela pertsonaiarik espainola edo frantsesa sentitzen denik... Daukagun errealitatea oso zaila da ulertzeko kanpoko batentzat. Oso naturalizatuta daukagu, baina guretzako normala dena ez da hain normala. Eta Faisaien uhartearena, zer esanik ez.

Miñan aipatu dugu, Fermin Muguruzaren *Bidasoa* 2018-2023... Hemen gertatzen ari diren gauzak hemendik kontatu dira lan horietan. Zuk aurretik *Altsasu* telesaila egin zenuen. Badago joera, ordea, hemengo gauzak kanpotik edota kanpokoentzat kontatzeko. *La Infiltrada* pelikula oraintsukoa

**Ari gara beste gai batzuei
heltzen, ari gara gure
historia gu geu kontatzen;
beharrezkoa da, beste
kulturek egiten duten bezala**



da, esaterako. Badu garrantzia hemendik eta hemengoentzat kontatzeak?

Erabat beharrezkoa da. Oraindik Euskal Herrian ez gara hasi pelikulak egiten bizi izan dugun gatazka politikoaren inguruan. Ez dakit zergatik ez den egin. Uste dut gogoia egon badagoela, beldurra ere bai, egongo da, baina ez dakit interesik dagoen finantzazioa ipiniko luketenen aldetik. Uste dut, dudarik gabe, iritsiko dela unea horri heltzeko. Orain ari gara beste gai batzuei heltzen, ari gara gure historia gu geu kontatzen. Eta oso beharrezkoa da, beste kulturek egiten duten bezala.

Bukatzen joateko: inoiz gutxitan estreinatuko ziren pelikulak Ipar zein Hego Euskal Herrian aste berean.

Guretzako mugarik ez badago, uste dut horrela estreinatu behar zela. Argi eta garbi: mugarik gabe.

Areto asko zapaltzeko asmoa daukazue.

Orotara 110 aretotan emango da pelikula. Eta hitzaldi batzuk ere bai, egingo ditugu. Uste dugu garrantzitsua dela edukiaz hitz egitea, testuingurua jartzeta, eta horretarako Harrera Sarekoak, Aita Marikoak eta Gari Garaialde argazkilaria izango ditugu alboan.

Kanpora begira, jaialdi batzuetan egon zarete-eta, zabalduko da?

Uste dut salduko dela nolabait. Gaia, kanpora begira, interesgarria da dudarik gabe. Eta hemen gertatzen da, baina beste leku askotan ere bai. Euskaraz izatea, gainera, ez da inolako arazo bat; kanpora begira exotikoa ere izan daiteke. Eta ez dute bikoiztuko, horretan egin dute apustua ekoizte-teeek. Euskal Herrian bezalaxe, Frantzia eta Espainian jatorrizko bertsoan ikusiko da. ●



Azokaroa!

Sei ekintza kultural Ziburuko 6. azokaren atarian

Apirilaren 30etik aurrera Azokaroaren lehen printzak sumatuko dira Ipar Euskal Herriko zenbait txokotan. Uxue Alberdi egongo da *Hetero* liburua aurkezten, Maialen Lujanbiok errezetaldia eskainiko du eta Maddi Sarasuak bere liburuaren aurkezpen musikatua egingo du senide eta lagunekin, besteak beste. Ziburuko azokaren 6. edizioa ekainaren 7an izango da.

 UNAI LOMANA URIBEZUBIA

ARGIAk eta Baltsan elkarteak elkar ekintzan antolatutako Ziburuko Euskal Liburu eta Disko Azokaren 6. edizioa ekaineko lehen larunbatean izango da, ohi bezala. Martxoan zabaldu zen izen ematea eta, apuntatzeko hilabeteko epea bat eman bazuten ere, lehenago itxi zen arrakas-taren ondorioz.

118 metro erakusmahai izango dira guztira. 43 argitaletxek, diskoetxek eta autoekoizlek eman dute izena, horietatik 33 liburugintza arlokoak eta hamar musikakoak. Gainera, ekoizle berriak ere izango dira azokan: lau argitaletxe (Euskaltzaleen Biltzarra, Nabarralde, Talaia eta Rolariak) eta bost auto ekoizle edo proiektu (Alabena, Elkor-Karma, Esan Ezin, Madame Birrots eta Sara Zozaya).

AZOKAROA, APIRILAREN 30EAN MARTXAN

Azokaroa apirilaren 30ean abiatuko da eta dozena erdi ekimen antolatu dituzte, denak ere Ipar Euskal Herrian. Antolatzailerik hiru oinarritan laburbildu dituzte haien helburuak. Lehenik, Ziburuko azokari hedadura gehiago eman nahi izan diote, plazaren eta egun bakarraren "mugak" gaindituz, baina bere neurri-egokituz, "hurbiltasuna" eta "gozotasuna" zainduta; bigarrenik, auzo eta herriek azokari eskaintzen dioten giroa itzultzea, "azoka inguruko animazio edo ekitaldiak herri hauetara ekarri"; hiru-



Maialen Lujanbioren RRzitala Iruñeko Katakraken; maiatzaren 7an Ziburun izango dute. / Iruñaldia

garrenik, ARGIAk dioen bezala, txikitik eraginez, "auzo eta herrietan euskaraz bizitzen ari diren talde edo elkarteekin sareak sortu eta elkar lanean aritzea eskualde mailan".

Azokaroa apirilaren 30ean abiatuko da ekaineko lehen larunbatera arte, eta denbora tarte horretan dozena bat emanaldi antolatu dituzte. Uxue Alberdik *Hetero* liburuaren aurkezpenari helduko dio apirilaren 30ean, eta Maialen Lujanbioren errezitaldi poetiko-bertso-performatiboak emango dio jarraipena maiatzaren 7an.

Horiez gain, beste zenbait errezitaldi musikatu, liburu aurkezpen edo mahai inguru izango dira: Maddi Sarasuak *Biharraren hegietan* liburuaren aurkeztuko du, musikatuta, senide eta lagunekin, maiatzaren 16an; *Euskaraz sortu (duin) bizi?* mahai ingurua Ximun Fuchs eta Amagoia Gurrutxagaren eskutik maiatzaren 19ko astean ARGIA astekarian eta Euskal Irratietan; Mikel Epaltzaren *Gizatasun arrantza* liburuaren aurkezpena maiatzaren 23an; eta Ekaitz Bergarretxeren *Masusta erreximenta* liburuaren aurkezpena maiatzaren 28an. ●

“ ”

Azoka hedatzen ari gara, baina gure neurrian, era kontrolatuan

Ladix Arrosagarai

 XABIER LETONA BITERI

2019an hasi zen Ziburuko azoka eguneko ekitaldi gisa, baina azken urteetan azoka egunaz aparteko ekitaldiak antolatu izan dira inguruko herrietan ere: Azokaroda. Ladix Arrosagarai Baltsan elkarteko kidearekin mintzatu gara Azokarodaren nondik norakoez. Ziburuko azokan 20 minutuko sei liburu aurkezpen izaten dira, eta 2022ko ekitaldian ohartu ziren ez zela nahikoa: “Horregatik, Joanes Etxeberri Ziburuko idazlearen aurkezpena egin genuen azoka egunetik kanpo, eta 35 bat pertsona bildu ginen Ziburun. Horrek erran nahi zuen azokatik at ere jendeak bazuela horrelakoen gogoia”.

2023an probatzen segi zuten eta bi ekitaldi gehiago antolatu zituzten: Rafa Rueda eta Gotzon Barandiaranen *Hitzen Ahairera*, eta Miren Azkarateren *Ikusezinak* liburuaren aurkezpena. Berriz ere ontsa hartuak izan ziren. Eta horrek 2024an Azokaldia antolatzeraz eraman zituen: “Azokak bere mugak hunkitu zituen, eremu eta denbora aldetik. Bi egunetara pasa? Ez, Baltsanen musu-truk aritzen gara eta pisuegi gertatuko zitzaigukeen. Lapurdi kostan arras guti gara euskal hiztunak, beraz, sortu behar dira momentuak euskaldunak batu, komunitatea indartu eta euskaraz goza dezagun”. Horregatik, aurreko hilabetean, maiatzean, azoka inguruko herrietara zabaltzea pentsatu zuten eta iazko edizioan lau ekitaldi egin zituzten Urruñan, Azkainen, Donibane Lohizunen eta Ziburun. “Lehen auzo ditugun herri horietatik datoz Ziburuko Azokara eta



APRIL ~ MAIATZEAN	Ordua	Liburu Aurkezpena	Liburularia
30. ORTZAIZE MENTA liburuaren	18.30	"HETERO"	UXUE ALBERDI EGILEAREN
7. ZIBURU Baltsan	19.00	"RR -6-ERRE(AH)ALA"	MAIALEN LUJANBIOREN ERREZITALDIA
16. URRUNA Bertoli	19.00	"BIHARRAREN HEGIETAN"	MADDI, AINHOA eta IKAS SARASUA eta JULEN LEZARIN ERREZITALDI MUSIKATUA
19. URRUNA Baita	19.00	"EUSKARAZ SORTUZ (DUIN) BIZI?"	MAHAI INGURUA XIMUN FUCHS (Artedrama, Azul) eta AMAGIOIA GURRUTXAGA (Lanartea)
23. AZKAINA Bili Toki	19.00	"GIZATASUN ARRANTZALE"	MIKEL EPALTZA EGILEAREN
28. DONIBANE LOHIZUNE Mediateka	19.00	"MASUSTA ERREXIMENTA"	EKAITZ BERGARRETXE EGILEAREN

guk ere zerbait itzuli behar genien, eta horrela berretsi dugu jendeak baduela interesa, 30-40 bat herriar bildu izan baitira ekitaldietan". Urruñan Ikastolako Euskaraz Bizi Batzordearekin antolatzen dituzte ekitaldiok, Azkainen irakurle taldekoekin eta Donibane Lohizunen AEKrekin: “Kezka berberak partekatzen ditugu”.

Eta 2025ean? Lehenik eta behin izen aldaketa gauzatu dute, Azokalditik Azokarora. “Aurten Euskaraldia maiatzera aurreratu da, eta ondorioz, ikusten genuen nahasgarria


gerta zitekeela Azokaldiarekin. Hortik dator izen aldaketa”. Eta bada bestelako aldaketarik ere, iaz auzo herrietara hedatu bazen Ziburuko azoka, aurten auzo herrialdetara hedatu da, eta Nafarroa Beherako Ortzaizen antolatu dute ekitaldi bat: Uxue Alberdi idazleak *Hetero* liburuaren aurkeztuko du Menta liburu-dendan.

Arrosagaraiak zehazten du Ziburuko azokak, bere xumean, izaera nazionala duela. “Baltsanek eta ARGIAk antolatzen dugu eta Euskal Herriko herrialde guztietatik datoz argitaletxeak eta jendea. Aurten Ortzaizera zabaltu gara eta, zergatik ez, datozen urteetan Bera, Lesaka, Irun edota Hondarribira: ez dugu muga hautsiko horrekin, baina gainditu bai, eta hori garrantzitsua da guhauren buruetan bereizten gaituen muga desagerrarazten joateko”.

Aurten lehenbiziz ere, bi hedabide ekitaldi baten bultzan jarri dituztela dio, horrela

Euskal Irratiak eta ARGIAk *Euskaraz sortuz (duin) bizi?*, mahai-ingurua antolatu dute Amagoia Gurrutxaga eta Ximun Fuchekin. “Horrelakoei ere eutsi nahi genieke, euskararen edota euskal kulturaren ingurumarian izan daitezkeen hausnarketak eta eztabaida esanguratsuak lantzeko. Euskarak egiten gaitu herri, eta kulturak herri bizi; beraz, sorkuntza lagundu behar dugu, bestela gure kultura folklorizatuko da. Azokarodarekin, Ziburuko azoka hazten doa pixkanaka, baina bere neurrian, era kontrolatuan”.

Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:


- 1.** Izpi, pusk. / Alor, lantzen den lurzati mugatu. **2.** Lehor, agor. / **Argazkiko mendizerra.**
3. Numero gramatikalkaz mintzatuz, hitz edo gauza bati eta ez askori dagokiola adierazten duena.
4. Larrugorrian. **5.** Elkartu. / Hitz batek adiera bat baino gehiago izatea.
6. Astia, denbora libre. / Norbaitengan desira sorrarazi.
7. Arreta, oharmen. / Manamako herritar. **8.** Narrasti mota. / Gune sakon.

GOITIK BEHERA:

1. Pisatzeko erabiltzen den tresna, balantza. / Ahots. **2.** Zezen zikiratu. / Esnea ematen duen abere. **3.** Zonbako biztanle. **4.** eman, argitaratu. **5.** Otoaren oihu. / Plutonioaren ikurra. **6.** Kaiku, kirten. / Dagoen. **7.** Soluzio. **8.** Loriaz bete. **9.** Gadolinioaren ikurra. / Leku jakin bateko fenomeno meteorologikoen multzoa. **10.** Euskal Idazleen Elkarte. / Asiako estatua. **11.** Osasuntsu. **12.** Erara. **13.** Hildako pertsona baten agerraldi. **14.** Ukan. **15.** Atmosfera eratzen duen gas nahastura.

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERA DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

Jipoia	ZURRA
Larru (Bizkaian)	
Mantendu, eutsi	
Norabait	
Etekina, emaitza	
Araudi multzoa	
Argibide	
Pasatu, iragan	
Muskulu	
Herri handia	
Barrea	
Eseri	
Buru egin	JARKI

Sudoku

ERRAZA

	1	8		6	3			
5	2		1	4			6	7
			7	2				
6			8		2	9	5	
4	5	2	6			1	8	3
	8		4	1	5			2
8				5	1	2	9	6
	3	5		8	6	7		
1	9	6	2			8		

ZAILA

		7			9		3	
			1					9
	9				4	2	1	
4		2				1		
			9	2	8			
	5							
7		5			3			
		1	4		2	7		3
3	8					6		

EBAZPENAK

ATSOTZITZA
HARTZEKO TXARRA
HOBEA DA ZORONA
BAINO

3	8	4	5	9	7	6	2	1
9	6	1	4	8	2	7	5	3
7	2	5	6	1	3	9	8	4
8	5	9	7	4	1	3	6	2
6	1	3	9	2	8	4	7	5
4	7	2	3	6	5	1	9	8
5	9	6	8	3	4	2	1	7
2	3	8	1	7	6	5	4	9
1	4	7	2	5	9	8	3	6

ANAGRAMAK

ERRAZA

1	9	6	2	7	4	8	3	5
2	3	5	9	8	6	7	4	1
8	4	7	3	5	1	2	9	6
9	8	3	4	1	5	6	7	2
4	5	2	6	9	7	1	8	3
6	7	1	8	3	2	9	5	4
3	6	4	7	2	9	5	1	8
5	2	9	1	4	8	3	6	7
7	1	8	5	6	3	4	2	9

11. SANO, 12. ERAN, 13. MAMU, 14. IZAN, 15. AIRE,
7. BAAZEN, 8. LORIOS, 9. GD, KLIMA, 10. EIE, IAK,
ZONBATAR, 4. ARGITAR, 5. ULU, 6. ALU, DEN,
GOITIK BEHERA, 1. PISU, BOZ, 2. IDI, BEHI, 3.
8. ZIRAU, SAKONUNE,
6. BETA, DESIRAAZIL, 7. OHARPEN, MANAMAR,
3. SINGULAR, 4. BILUZIL, 5. BATU, POLISEMIA,
ESKEK-ESKUN: 1. PLAZAR, EUGE, 2. IOR, ABOI,



Kantuak euria atertu zuenekoa

GORKA INTXAUSTI ARANGUREN **STUART MACDONALD**

Ordurdi baino ez da falta Iruñeko Gazteluko Plazan kontzertua hasiteko; baina erdi hutsik da oraindik, euria ari baitu. Porlanezkoa nahiz ez den, inork ez du bustitzeko gogo handirik: goiztiar eta sanoenak plaza erdiko kioskoan dira zain; berantiarrenek, alegia, poteatzaile sutsuenek edo asteburu osoa Berriozarren pasa dutenek, *koba eroso eta arrisku gabe* bihurtu dituzte plaza inguratzen duten arkupeak, eta ez dira hurbildu hurrengo potea eskatu duten arte.

Dena aldatu da, guztiak berdin jarraitzeko. Espero izatekoa zen egoera ikusita. Plaza handia, eguraldi petrala, eta publikoaren eta eszenatokiaren artean halako segurtasun-tarte handi bat. Ekintza epiko baina isil baten bidez egoera iraultzea erabaki dugu, eta inor baino aurrerago jarri gara. Lotsatuta. Albo batean. Emozio fuerteak bai, baina pasa gabe.

Orube disko berriko bi kantuk musikatu dituzte jende gehiago etorri eta

lehen lerroa gure parera iritsi den arteko uneak. Gustuko dugu etapa honetan eraikitzen ari direna. Klasiko batzuk ondotik, giroa berotzen hasteko: *susmoa da, baina agian hanka-sartzeek ez dute balio jada ikasteko ere...* Azken diskotik lau urte pasa diren arren, letrak ez ditugu ahaztu. Klasikoen artean bat aukeratzekotan, ordea, Jon Basagurenek oholtzan ageri ohi duen irribarrea. Zenbat eskertzen den hurbiltasun hori sentitzea, talde bat ez baita musika soilik. Fokua apur bat zabaldua, Aitor Agirrek (Duluth) hartu du Danilo Forondaren lekua, baxua eskuetan eta bigarren ahotzak hortz artean. Horrelaxe ari dira eta arituko dira bira honetan.

Jendeari erreparatu eta esan beharko banu gasteiztarrek zer eragiten duten, honako hau esango nuke: haiek ikustea da burua ondokoaren sorbaldan pausatuta eta begiek dir-dir egiten duten artean kantuan aritzea, bolumena askorik

igo gabe; da tarteka aterkipetik irten eta jauzi batzuk egitea ziba baten antzera; da kontzertu lasai bat ikustera joan eta eztarria urratu beharrean koroak egiten bukatzea *a, a, aaaa...*

Izan ere, sotila bezain garrantzitsua da talde honi bigarren ahotsak ematen dioten osotasuna, goitik zein behetik, orain bat, orain bi, orain hiru. Bakoitza dagokion tonuan eta unean. Oihu egiteko ez delako oldarkorra izan beharrik, ezta oldarkorra izateko oihu egin beharrik ere, ondo egiten bada. *Gora Euskal Herria askatuta* halako leku batean aldarrikatzeko ere ez.

Oso ondo kantatzen ez dugunok – gaizki abesten dugula ez esatearren – ederki dakigu badela uste oso hedatu bat, ez dakit herri honetan edo mundu osoan, zera dioena: ez da komeni eguraldi ederretan gaizki abesterik, euria hasterik nahi ez bada. Nik ez nekien, ordea, alderantziz ere gerta zitekeela. ●

IZAKI GARDENAK

NOIZ: apirilaren 20an.

NON: Iruñeko Gazteluko Plazan.



LIBURUA

Herriaren bihotza zabaltzeko giltza



MARTIN MARTINA ETA URREZKO ORRAZIAREN MISTERIOA

AMANCAY GAZTAÑAGA

ELKAR, 2024

AMAIA ALVAREZ URIA

Amanca y Gaztañagak *Martin Martina eta urrezko orraziaren misterioa* kaleratu du Alain Martinezen ilustrazioek lagunduta. Trilogia baten lehen alea da hau; bigarrena *Martin Martina eta sorginen batzarra* da, jada kanean dena. Hirugarrena, ordea, irailean aterako da: *Martin Martina eta Gauekoak*.

Protagonista Martin Martina da, 13 urteko intersexuala. Gazteentzako nobela hau fantasia eta abentura generoen artean dabil. Gainera, Itxaro Bordaren nobela beltzen bidetik, mezu ekologista eta feministak ditu (oso eskertzekoa bizi dugun garaiaren lurrarekiko eta komunitatearekiko deskonexioaren aurrean).

Institutuan grafiti bat agertuko da; protagonistak egina. Ikastetxeko zuzendariak eta aitak erabakiko dute herri-

ra bidaltzea zigortuta. Herrira heltzean bertan seko aspertuko dela uste du MMk, baina berehala konturatuko da eguneko argiak gordetzen dituztenak badirela, eta haien atzetik abiatuko da.

Narratzaile orojakileak kontatuko dizkio zuzenean irakurleari “egiazko gertakariak” izan direnak, tarteka iruzkinak egiten dizkiola. Ahozko transmisioa presente dago lan honetan, “amak txikitan kontatutako ipuinak” aipatzen dira, horietan gordetzen den jakituria eta bizi-ikuskeraren ahanzturatik berreskuratzeko.

Izan ere, mitologia eta naturarekin lotutako sinesmenak nabarmenduko dira eta MMk lagunekin deskubrituko du aipatutako mundu ezkutua. Gaztelua, basoa eta kobazuloa dituen herri batera joango da, aitona-amonen etxera, eta bertan lur-

peko eremua ezagutuko du (Jon Mentxakatorreren doktore-tesiko izendapena izaki mitologikoen munduarentzat).

Gaztañagak 2021ean Susa argitaletxearen eta EHAZeren Ganbila bilduman argitaratu zuen *39 lore* antzezlan. Bertan, helduentzat proposatu zuen mitologia klasikotik hartutako arketipo femeninoekin hausnarketa egitea eta oraingoan antzeko ariketa bat egin du gazteentzat euskal mitoen bidez.

Misterio batzuk argitu gabe geratuko dira lehen liburu honetan, eta bildumako hurrengo aleetara jo beharko du irakurleak horiek askatu ahal izateko.

Gazteek irakurtzeko ohitura landu dezaten oso gomendagarriak dira horrelako bildumak. Era berean, belaunaldiak elkarriketan jartzeko proposamen ederra da, herriaren bihotza zabaltzeko giltza. ●



MUSIKA

Nagusitasun absolutua



E. MORENO ESQUIBEL

AMARTUVSHIN ENKHBAT BARITONOA

PIANOAN: Stefano Salvatori.

ANTOLATZAILEA: OLBE.

ZER: Verdi, Mascagni, Leoncavallo eta Giordanoren operen ariak.

NON: Bilboko Euskalduna Jauregia.

NOIZ: martxoaren 29an.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Bagenekien ez zigula huts egingo, aurreko denboraldian aho zabali utzi gintuelako *Rigoletto* operan. Baina, agian, gure aurreikuspenak gainditu zituen, alderdi teknikoan behintzat.

Amartuvshin Enkhbat baritono mongoliarra noizean behin sortzen den naturaren indar horietako bat da. Ez da su motelean prestatutako talentu bat, hobekuntza-pauso askoren bidez prestatutako izarra. Ahots-geiser bat da, ahots eramangarri eta naturala. Ez da harritzekoa iaz Ettore Bastianini saria jaso izana, gaur egun baritono-ahotserako sari garrantzitsuenetakoa bat.

Bere ahotsa zirraragarria da, indartsua, iluntasun izugarri liluragarria duena... Baritono absolutua da, benetan. Agian aitzakia bat jar dakioke: kantuari une batzuetan heltzen dion

nolabaiteko adierazkortasunik eza, alegia. Hori nahiko nabaria izan zen Enkhbatek interpretatu zituen lehenengo bi erromantzeetan, Verdirenak, noski, konpositore honi eskaini baitzion bere errezitaldiaren zati handi bat. *Brindisi* eta *L'esule* abestietan bere ahots zoragarria erakutsi zuen, baina interpretazioak une mekaniko samarrak izan zituen, nolabait esatearren.

Hala ere, errezitaldiak aurrera egin ahala, bere ñabarduren aberastasuna, bere kantuen dotoresasuna eta ariarik konplikatuak kantatzeko duen erraztasun ikaragarria gero eta gehiago antzeman ahal izan ziren.

Stefano Salvatori pianistak Verdiren *Romance sans paroles* delikatu bat jo ondoren, Enkhbatek *Il trovatore*, *La traviata* eta *Un ballo in maschera* operen hiru arieekin jarraitu zuen, eta ho-

rietan verdiano perfektua dela frogatu zuen.

Errezitaldiaren bigarren zatian, baritonoak Verdi egindako omenaldi bereziarekin jarraitu zuen. Aldi honetan, *Perfidi, all'Anglo... Pietà, rispetto, onore* aria, *Macbeth* operakoa, nabarmendu beharko genuke. Aria honetan, abeslari erraldoi honek bere kapazitate guztiak bota zituen, ñabarduren barietatea eta ahots dotorezia erakutsi zituen nota bakoitzean.

Baina Enkhbatek beste konpositore batzuekin ere gozatu gintuen: Leoncavalloren *Si può?...*, *Pagliacci* operakoa, interpretatu zuen, benetako harribitxia. Eta ahots boterezko alardea egin zuen Umberto Giordanoren *Andrea Chénier* -en *Nemico della patria*-n, publikoa liluratuz. Maitemintzen duen ahots bat da, bene-benetan. ●

Merezi duen esentziaren bat

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Dena ezin baita laburbildu gerra, krisi ekonomiko, politika parlamentario eta estraparlamentarioaren gorabeheretan: kontu itxuraz anekdotiko, tribial eta garrantzi gutxikoek ere bai baitute txungurra, gutxien espero duzunean agertzen dena. Gizonezkoen futbol profesionala, adibidez. A ze gauza: 22 tipo galtza motzetan baloi bati ostikoka. Herriaren opioa. Itxuraz, buruari pixka bat eragiten dion edonork baztertu behar lukeen afizioetan lehena. Horixe pentsatzen nuen garai batean: irakurketatxo batzuk eginak nituen eta, tira, ez zuen asko pegatzen orduko nire pertsonaia-ekin –eta oraingoarekin ere ez segur aski, horregatik nabil zirkunlokuzio honetan bueltaka–.

Kontua da Imanol Alguacilek Realeko entrenatzaile postua utziko duela denboraldi hau bukatzean eta, oso ondo esplikatzeko ez dakidan arrazoiengatik –artikulu hau arrazoi horiek aurkitzeko saiakera da, beste ezer baino gehiago–, asuntua burutik kendu ezinda pasa dudala joan den astea.

Saiatu ulertzen: umetan futboleko jokatzen nuen –esateko modu bat da–, eta ikusten nuen eskolara joaten nintzen hiriko taldea, denboraldia joan, denboraldia etorri, sailkapenaren erditik gora eskalatu nahian eta... ezinean –irakurri azken hitz hori Juanan Larrañagak bakarrik

esan dezakeen modu horretan–. Jokoa gutxi baina gehiago egiten zituen fitxaketa estranbotikoengatik gogoratzen den Real hark, hala ere, zerbait esaten zion zaleari, etxeko jokalariekin –Imanol bera tartean– konektatzen zuelako zenbaki hutsek nekez esplikatzeko duten eran. Identitate deitzen diogu konstruktuko konplikatu hori. Zeina, futbolaren munduan, justu garai hartan, pikuak erruz biltzera joan baitzen Bosman kasua zela-eta: barra libre hamaikako osoa atzerritarrekin osatzeko, jokalaritalde-zale triangeluan haustura ikaragarria. Bestela ere diruak ustelduta zegoen ikuskizuna gehien pagatzen zutenaren legera are gehiago makurtuko zen orduz geroztik.

Reala ere, plasta, dinamika horretan murgilduta, urte luzez aritu zen urrutiko intxaurretan hamalau ikusten, gerturatu eta Lee-chun-soo, Asper eta Peiremans aurkitzeko. Bere burua eza-

gutzeari utzi ziola esango nuke. Zenbait momentutan –2008, 2009 inguru hartan adibidez–, fedea baino gehiago behar zen klubari zerbait interesgarria ikusteko. Gero, egia da, izan ziren denboraldi gogoangarri batzuk, baina Imanolen zikloa bezalakorik ez du ezagutu realzaleak, nik zer dakit, azken 30 urteetan gutxienez.

Eta esango nuke, epe luzera begira, ez dela hainbeste izan emaitzengatik, betirako puskatua zirudien zerbait –jokalaritalde-zale triangelua, gogoratu–, nolabait berregituratu delako baizik. Harrobiaren aldeko apustua, joko-estilo identifikagarria, edozein areriori erakutsitako errespetua, entrenatzailea taldearen *supporter* handiena. Konstruktuko konplikatu horrentzako osagaiak.

Telebistak, hedabideek, mota guztietako esponsorrek, enpresariak, bitartekariak, petrodolarrek eta bururatu ere egiten ez zaizkidan zomorroek gobernatutako *milieu* horren er-

dian, dena kalkulu, estatistika, errendimendu, Imanol Alguacil bezalako norbait agertzea ez da hain ohikoa. Beste gauza asko ere beharko dira, noski, futbol moderno noizbait piezaz pieza desmuntatuko bada, inoiz atera behar ez zuen lekura, bere oinarri sozialera, itzularazteko. Baina oriotar batek, gutxienez, pentsarazi digu agian, beharbada, akaso, joko zahar honek gordetzen duela oraindik merezi duen esentziaren bat. ●



Sarean eduki guztiak irekita **zuri esker**

Lagundu sare
libreari eusten:

argia.eus/eginargiakoa

 **ARGIA**

Desinformazioari aurre egiteko.
Ezkerreko ikuspegi batetik,
Euskal Herri kritiko, konprometitu
eta euskalduna elikatu nahi dugu.



Kutxabank Euskaraldiarekin

2025EKO

MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*



kutxabank
Benetan.